Principalmente, para hacer frente a la exclusión social y favorecer el desarrollo psicopedagógico de cada alumno/a, resulta interesante ponerse en contacto con EOE, ya que ellos después de observar las necesidades del alumno/a y orientan sobre el proceso educativo aconsejable. Los EOE⁹ son unidades de asesoramiento psicopedagógico, formado por médicos, psicólogos, pedagogos y maestros. Las funciones de estos especialistas se clasifican en diferentes necesidades, (Isabel M^a Bellido Muñoz, 2010):

Funciones generales a desarrollar en cada uno de los centros docentes:

- Asesorar a los centros educativos en la elaboración, aplicación y evaluación del Proyecto de Centro y del Proyecto Curricular.
- Asesorar al profesorado y familia en el diseño de procedimientos e instrumentos de evaluación.
- Orientar al profesorado del centro en el tratamiento educativo de la diversidad de aptitudes, intereses y motivaciones del alumnado.
- Ser partícipes del desarrollo del programa de refuerzo y adaptación curricular.
- Elaborar material didáctico para la intervención psicopedagógica que sean de utilidad para el desarrollo académico.

Entre las funciones, encontramos otras más especializadas en diferentes áreas de trabajo. Por un lado, las funciones de orientación hacia los tutores:

⁹ OE: Equipos de Educación Orientativa.

- Asesorarlos técnicas o materiales para la mejora académica del alumno/a con NEE.
- Advertir al profesorado de posibles dificultades académicas.
- Ayudar en la planificación de actividades en aspectos como la organización del aula y el agrupamiento del alumnado, diseño y realización de actividades de refuerzo educativo, adaptaciones curriculares, técnicas de estudio e integración social de los alumnos y alumnas en el grupo.

Por otro lado, nos encontramos las necesidades de orientación vocacional y profesional:

- Facilitar al profesorado, alumnado y familiares información del ámbito académico y profesional.
- Ser partícipes en el desarrollo de actuaciones para ayudar en la transición de las etapas educativas.

Entre las funciones de EOE, encontramos las funciones de atención a la diversidad:

- Realizar la evaluación psicopedagógica del alumnado con NEE y proponer la modalidad escolarización recomendada.
- Asistir técnicamente al profesorado a la hora de evaluar las adaptaciones curriculares individualizadas.
- Desarrollar acciones educativas para la atención temprana de Planificar y desarrollar acciones educativas para la prevención y atención temprana del alumnado con NEE.

Según la federación Autismo Castilla y León, en su guía para profesores y educadores de alumnos con autismo de 2005, a la hora de escolarizar a un alumno/a que padece autismo, hay que tener en cuenta los diferentes modelos educativos que existen hoy en día, ya que dependiendo de las necesidades del alumnado y objetivos de la familia hay diferentes modelos a elegir. Por un lado, está la opción de escolarizar en un grupo ordinario a tiempo completo; en este modelo la igualdad de oportunidades es el primer objetivo, es decir, la inclusión. Es por ello, que el alumno/a entrará en el aula ordinaria en la cual se le hará seguimiento de currículum, adaptaciones, refuerzos y/o apoyos que

necesite. En este modelo es posible en la etapa Infantil como en la etapa Primaria, donde los/as profesionales del centro se centrarán principalmente en los aspectos de comunicación y lenguaje.

Aún habiendo ventajas en este modelo educativo, se dan diferentes dificultades, ya que los centros escolares de hoy en día no disponen personal suficiente para responder a todas las necesidades que se dan en la escuela y los/as alumnos/as puede que no reciban las horas necesarias para su desarrollo.

Otro modelo es la escolarización en un grupo ordinario con apoyos en periodos variables. En este modelo se parte en un aula de referencia y parte en un aula fuera de la ordinaria. La distribución del tiempo en cada aula y la adaptación curricular que se le ofrecerá al alumnado será según las necesidades que tenga. Para evaluar qué adaptaciones curriculares y cuanto tiempo debe estar en cada aula, es necesaria una evaluación psicopedagógica. En dicha evaluación se evaluarán diferentes aspectos del alumnado: puntos fuertes, intereses, conductas, sistema de comunicación y alteraciones motrices y sensoriales. Una vez evaluado el/la alumno/a y ver sus habilidades y dificultades, se diseñará una adaptación curricular donde el objetivo principal será ayudarle en el desarrollo como personal, tanto personalmente como académicamente. A la hora de adaptar el currículum se tendrán en cuenta dos modelos: por un lado las adaptaciones significativas, aquella donde se darán variaciones en el currículum; por otro lado, las adaptaciones no significativas, aquellas que se centran en los aspectos de acceso al currículum.

Habiendo elegido un modelo u otro, hay que tener en cuenta que los primeros años en el centro escolar suelen ser complicados, ya que en la etapa Infantil se harán las primeras adaptaciones curriculares y estas son clave para los cursos posteriores. Es por ello, que los objetivos principales de la etapa Infantil debe ser la inclusión, la adaptación positiva en el aula y en las actividades propuestas durante el curso. Para ello, la federación Autismo Castilla y León propone: mantener el aula organizada, anticipar los acontecimientos, adaptar los recursos necesarios y emplear estrategias específicas.

Si se opta por la escolarización en los centros ordinarios, las adaptaciones se darán en diversos aspectos: por un lado, se darán las adaptaciones en los recursos; para

que el alumnado pueda tener un aprendizaje eficaz, será importante adaptar el material, simplificarlo y hacerlo manipulativo y visual. Por otro lado, se darán adaptaciones en los objetivos y contenidos del currículum; para que los conceptos aprendidos por el alumnado sean eficaces, se debe tener en cuenta en escoger principalmente los objetivos que faciliten su día a día, es decir, los que tengan mayor práctica social y que tengan la opción de aplicarse el mayor número de situaciones. A la hora de seleccionar los objetivos a desarrollar, se elegirán los que favorezcan sus funciones cognitivas, así como, la atención, percepción de memoria, comprensión, flexibilidad, simbolización por favorecer la autonomía y la socialización. Por último, otro aspecto a adaptar es el de la evaluación; en el caso de los alumnos que padecen autismo, tras una adaptación curricular se dará una evaluación flexible, ya que se evaluarán las habilidades y dificultades con las que se encuentra el alumnado en su vida práctica.

Aún habiendo matriculado al alumnado en cualquiera de las dos opciones anteriores, según las necesidades de los centros educativos, puede haber más personal especializado en alumnos/as con necesidades especiales; entre ellos esta el/la PT, el/la logopeda, el/la orientadora y/o el/la psicólogo/a. Una vez adjudicadas las plazas y sabiendo la cantidad de profesionales que se obtiene, se hará la distribución temporal en cada alumnado. Para ello, a la hora de organizar las sesiones de PT con el alumnado, se tendrán en cuenta los siguientes requisitos:

- Para la asignación de sesiones a cada alumno/a se tendrá en cuenta a los EOE de Navarra, donde según sus observaciones decidirán cuantas horas a la semana necesitan apoyo para dar respuesta a sus dificultades. De mismo modo, se tendrán en cuenta los horarios de los tutores para que las horas ofertadas sean efectivas.
- Se tiene en cuenta el principio de equilibrio, entre la necesidad de refuerzo máximo y la menos separación de los alumnos/as de sus compañeros.
- Se intentará que las ayudas a las necesidades se den dentro del aula ordinario, con el objetivo de reforzar la inclusión.
- Las sesiones de apoyo al alumnado durante el curso pueden variar según las necesidades que se vayan observando durante el proceso.

Los objetivos generales de estos profesionales es responder específicamente a las necesidades de los alumnos/as con NEE. A continuación, se mencionan dichos objetivos (Luna vicario Prieto, 2017):

- Colaborar con los tutores/as del centro en el diseño, aplicación y seguimiento de la adaptación de la programación dentro del aula.
- En caso de que sea necesario, diseñar, y aplicar los programas de adaptación curricular.
- Colaborar en la selección, elaboración y adaptación del material didáctico para el alumnado.
- Asesorar al profesorado del centro sobre estrategias metodológicas de actuación y prevención.
- Coordinar a los especialistas del centro sobre las NEE del alumnado.
- Favorecer la inclusión del alumnado en los diversos contextos.

Entre los modelos de escolarización encontramos las escuelas de educación especial. Para poder escolarizar al alumnado en este modelo educativo, debe tenerse en cuenta lo que la ley orgánica 2/2006 explica. En dicha ley, en el artículo 74 se especifica que *“la escolarización de este alumnado en unidades o centros de educación especial, sólo se llevará a cabo cuando sus necesidades no puedan ser atendidas en el marco de las medidas de atención a la diversidad de los centros ordinarios”*. Por ello, cuando se escolariza en este modelo educativo debe tenerse en cuenta que cada alumno del centro padecerá una discapacidad (no tiene porque ser autismo), la cual no le deja escolarizarse en un centro ordinario y necesita atención especial por parte de los/las profesionales. Para poder responder con eficacia a las necesidades del alumnado, que las aulas estarán capacitadas para llevar a cabo el desarrollo de 4-5 alumnos/as. Respecto al currículum cada alumno/a tendrá una adaptación individualizada, la cual será desarrollada por profesionales, así como, maestros/as, psicólogos/as, logopedas y PTs.

De todas formas, en el caso de un alumno/a con autismo, sea el modelo educativo que sea, es conveniente que haya siempre el/la mismo/a profesional personal durante toda la jornada escolar ya que al alumno/a se le haría más fácil trabajar siempre

con la misma persona. Como anteriormente se ha señalado, a las personas que padecen autismo les beneficia mucho una rutina, donde su día a día está estructurado siempre de la misma manera, con lo cual, contra menos cambios haya menores serán sus crisis y más progresivo será su proceso de aprendizaje. Además, al profesional se le facilitara el trabajo, ya que, al estar con el alumnado durante toda la semana escolar, tiene más opciones de evaluar en diferentes aspectos del día a día y guiarle durante los obstáculos que vayan sucediendo a lo largo de su día.

Con lo cual, en los primeros cursos escolares o con alumnos con poca autonomía sería favorable tener la opción de compartir jornada escolar de la mano de un/a profesional (PT, AL, psicólogo/a, maestro/a...), para poder optar a un desarrollo cómodo y eficaz, en el cual pueda desarrollar diversas habilidades para su día a día y aprender a hacer frente a futuras dificultades. En el caso del alumnado que padezca autismo pero tenga autonomía no es necesario que le acompañen durante toda la jornada escolar, pero sí que se le adjudicarán horas con los/as profesionales para avanzar con los objetivos de curso propuestos.

2.3.3 A.N.A elkartea.

A.N.A elkartearen presidentea Amaya Ariz Argaya da, eta bere ideia izan zen honako elkartea sortzea; izan ere, berak autismoa pairatzen duen seme izan zuen duela 10 urte, eta laguntzaren bila zegoelarik konturatu zen ez zegoela baliabiderik autismoa pairatzen zuten pertsona eta familientzako. Horren ondorioz, 2012. urtean A.N.A elkartea sortzea erabaki zuen, Iruñeko Donibane auzoan.

Elkartek autismoa pairatzen duten eta familien bizi kalitatea hobetzea du helburu; pertsona hauen independentzia sustatu eta gizartean integratzen dituen bitartean. Modu berean, erakunde honek, familia eta profesional ezberdinei formakuntza eskaini nahi die, gizartea autismoari buruz kontzientziatzeko (A.N.A., 2016).

2.3.3.1 Elkarteek gizartean duten garrantzia.

Desgaitasunen arloko elkarteek desgaitasunak pairatzen dituzten pertsonen sarbide kolektiboa sustatu dute. Talde hauek giza-eskubideak lortzeko borroka egin duten plataforma nagusienak dira; modu berean, aniztasunaren inguruko erantzun eza eta desgaitasunak pairatzen zituzten pertsonen gizartearen parteko eskusioa salatu dute. Horregatik, garrantzitsua da elkarteek gure gaur eguneko gizartean duten garrantzia azpimarratzea.

Desgaitasunen inguruko elkarteak, gaur eguneko helburu kontuan hartzen bada, zailtasunak dituzten pertsonan bizi kalitatea areagotzeko sortzen dira. Hala ere, elkarteen etorrera, beharra eta garrantzia ongi ulertzeko, atzera begiratu behar da, Francoren diktadurara zehazki.

Francoren garaian, 1959an zehazki, gizartea deseroso sentitzen hasia zen eskaintzen zitzairen bizi kalitatearekin; horretarako, ideia berdinetako pertsonak talde txikietan biltzen hasi ziren, beharrak azertu eta erantzun bat eman ahal izateko. Horrela izanda, gizartean talde txiki ugari sortu ziren, elkarteak deiturikoak. Elkarte hauek pribatuak ziren eta honako laguntzak eskaintzen zituzten: laguntza pertsonala, gizartearen sentsibilizazioa eta administrazio publikoei aurre egiteko laguntzak.

Denbora aurrera zioan einean, Espainiar estatura Demokrazia iritsi zen. Demokrazia garaian sistema publikoa eta antolatua sortzen hasi zen eta honi esker, elkarteak gizartean zehar zabaltzen ziren, jendea talde hauen funtzioaren garrantziaz ohartuz. Beraz, elkarteak gai zehatz batzuen inguruaz egiten hasi ziren, horien artean desgaitasunen arlokoak sortuz.

Geroz eta espezializatuak ziren elkarte hauek entitate publikoak kudeatzen zituzten, nahiz eta izaera publikoa izan. Elkarteen garapena eman zezan Espainiar estatuan diru-laguntzak ematen hasi ziren, geroz eta baliabide gehiago eduki zezaten eta elkarteko pertsonen bizi-kalitatea hobetu zezan.

Orain arte, elkarte bakoitzeko partaideei eskaintzen zitzairen laguntza oso orokorra izaten zen, baina elkarteak geroz eta garatuagoak zeudenez erabiltzaileei eskaintzen zitzairen laguntza askoz indibidualizatuagoa izaten hasi zen. Horrela izanda,

gaur egun egiten den bezala, elkartearen barnean ezgaitasuna pairatzen zuen pertsona eta bere familiari laguntza eskaintzen zitzaion, bakoitzari programa indibidualizatu bat proposatuz (Díaz Velázquez, 2008).

Beraz, adierazi den moduan, elkarteek gizartera bizi kalitatearen hobekuntza ekarri dute. Gaur egun elkarte berriak sortzen dira, izan ere, gizartea aurrera doan einean behar ezberdinak sortzen dira; hauei erantzuna eman ahal izateko, gizarteko zenbait taldeek elkarteak sortzen dituzte behar zehatz bat duten pertsoneri lagundu ahal izateko.

Gaur eguneko elkarteek diru laguntza aunitz jasotzen dituzte iturri ezberdinetatik; hala ere, elkarte bakoitzeko bazkideek kuota bat izaten ohi dute, nahiz eta garestia ez izan. Modu honetan, kanpotik jasotako diru laguntzak eta bazkideek ordaindutakoarekin, urtean zehar burutu nahi diren proiektuak, baliabideak edota laguntza gehiago eskaini ahalko dituzte. Honen eredutzat A.N.A elkarteaz aztertuko da.

2.3.4.2 Baliabideak

Honako helburua aurrera atera ahal izateko erakunde honek zenbait baliabidetaz baliatzen da:

- Donibaneko lokala (Monasterio de Urdax, 36):

Bertan familia berriak jasotzen ditu eta lehenengo orientabideak eskaintzen dizkie, elkarteko proiektuak eta helburuak adieraziz. Donibaneko lokalean, umeen terapiak burutzen dira bertako profesionalekin (psikologo, pedagogoa edota irakasle).

- Jose Maria de Huarte eskola:

Iruñeko udaletxeak A.N.A elkarteari honako eskola hau eskaintzen dio, bai udako eta bai Gabonetako proiektua burutu ahal izateko. Udako proiektua burutzeko, ikasturtea bukatu bezain pronto abuztura arte eskaintzen dizkio. Gabonetako proiektua burutzeko, aldiz, Gabonetako egun guztiak.

- Baliabide pertsonala:

Lehen adierazi den moduan, erakundea antolatzen duten hiru emakume daude, presidentea eta bi zuzendari; hauen parean, gizarte langilea egonik. Hiru emakume hauen zeregina erakunderen dokumentazioa eta antolakuntza burutzea da, hau da, erakundearen funtzionamendua ongi joan dadin, eginbeharreko guztiak planifikatu eta burutzen dituzte.

Giza baliabideen artean, elkarteko hezkuntza arloko profesionalei buruz aritu behar gara. Profesional hauek, elkarteko umeei terapiak eskaintzen dizkiete eta urtean zehar haiekin elkarlanean aritzen dira ikasleen gaitasunak eta abileziak garatzeko helburuarekin, osotara 6 psikologo, 3 logopeda eta APYMA-n dauden 5 ama. Udako programa kontuan hartzen baldin bada, profesional kopurua handitzen da irakasle, psikologo, pedagogo eta logopeden artean, guztira 22 izanik. Beraz, profesional guzti hauek kontuan hartuta, elkarteak 40 profesionalekin aurrera egiten du proposatutako proiektuak aurrera eramanez ahal izateko.

Azkenik, elkarteko bolondresak aipatu behar dira. Elkarteak eskaintzen dituen proiektuak burutzeko eta ikasleen beharrak kontuan hartuta, bolondresak behar izaten dira; modu honetan, elkarteko ume bakoitzak “zaintzaile” bat izanen du eta arazorik gabe eguneko egin beharrekoak burutu ahalko ditu. Normalean, elkarte honetan aritzen diren bolondres batzuk hezkuntza arloan aritzen dira haien egunerokoan, hala ere, hezkuntza eremutik urrun aritzen diren zenbait bolondres egoten ohi dira ere.

Beraz, bolondres guztiek autismoari buruzko ezagutzak izan ditzaten eta ikasleekin ongi moldatu ahal izateko, bolondres izan baino lehen elkarteak derrigorrez egin beharreko ikastaro bat ematen du.

- Diru laguntzak:

Elkarteari bai entitate publikoek eta bai pribatuek ditu laguntzak eskaintzen dizkiete. Entitate publikoak jasotzen dutenaren %30a dira, eta honako erakunde hauek dira: Nafarroako gobernuak, Iruñeko udaletxeak eta Eguesibarko udaletxeak. Entitate pribatuek, aldiz, diru laguntzaren %70a dira, eta honakoak dira: banku entitateak, enpresak, bazkideak, egindako ekitaldietan ateratakoa eta donazioak.

Jasotako diru laguntza hauek, nagusiki uda eta Gabonetako proiektuak burutzeko izan dira. Dena den, diru gehiago baldin badute, egokitutako kirola burutzeko erabiltzen dute.

2.3.3.3 Metodologia

Behin erakundeko baliabideak aztertuta, horiekin batera helburuak betetzeko erabiltzen duten metodologia aipatu behar da. Bai proiektuetan eta bai profesionalak burutzen dituzten saioetan, TEACCH¹⁰ eta DENVER deituriko metodologiak erabiltzen dituzte:

TEACCH metodologiari dagokionez, Eric Schoplerrek sortu zuen 70eko hamarkadan. Metodologia honen helburua modu efektibo eta praktikoa batean eskola, familia eta gizartean bizitzen ikastea da.

Metodologia honen ibidez irakaskuntza egituratuta eskaintzen da, hau da, denbora, espazioa eta lan metodologia egokitu egiten da. Adituek esaten dutenez, TEACCH metodologiaren helburuen artean ikasle bakoitzaren arabera material guztiak ahalik eta gehien egokitzea dela. Modu honetan, ikasle bakoitzaren gaitasunak ahalik eta gehien landu eta garatuko dira.

Horrela izanda, ikasgelak antolakuntza berezi bat jarraitu behar dute. Lehenik eta behin gela txoko ezberdinetan banatu behar da, lan egiteko eremuak, espazio mugatuarekin eta piktoen bidez adierazita. Gelaren barne, atentzioa deitzen duten estimulu gutxi agon behar dira, modu honetan ikasleak haien lanean arituko dira eta autonomia gehiago garatuko dute.

Ikasleen egunerokoan, garrantzitsua da objektu guztiek laguntza bisuala izatea. Autismoa pairatzen duten ikasleek haien egunerokoan zehar egin behar dutena ulertzeko, pikto agenda erabiltzen dute. Bertan, piktoen bidez ikasleei etorkizunean egin behar diren gauzak azaltzen zaizkio; modu honetan, antsietate maila gutxiagotzen da eta ikaslea gutxiago haserretuko da. TEACCH-en arabera, lana egituratuta egon behar da, baina modu berean malgutasunez lan egin behar da; horrela, ikasleen autonomia

¹⁰ TEACCH: Treatment and Education of Autistic and Related Communication Handicapped Children.

garatzen joango baita. Autonomia garatu ahal izateko, ikasleen agendak laguntza bisuala izan behar dute; zer egin behar duten, noiz hasi eta noiz bukatuko den jakiteko.

Azkenik, jarduera ezberdinak proposatzen dira ikasleen gaitasunak eta abileziak garatzeko:

- Irakasle-ikasle: Jarduera mota hauetan irakasleak ikaslearen mugimenduak moldeatu egiten ditu, hizkuntza eta gaitasun soziala garatzen dute, kontaktu bisuala lantzen dute, baita arreta eta kontzentrazioa ere.
- Ikasle independentea: Lehen aipatu den materialaren antolakuntza autonomia sustatzen zuen. Beraz, ikasle batek material antolakuntzari esker irakaslearen beharrik ez duenean, autonomia garatzen ari da.
- Transito librea: Momentu hau jarduera bat bukatzerakoan eta beste bat hasi behar denean ematen da, izan ere, ikaslea bere pikto agendara joan behar da. eta bertan zehaztu zein jarduera bukatu duen eta zein hasi behar duen. Jarduera simple honen bidez, ikaslearen antsietate maila gutxiagotzen da.
- Txoko soziala: Txoko honetan ikasleek jolastu dezakete, hau da, beste ikasleekin harreman sozialak garatu ditzakete.
- Talde lana: Autismoan abilezia sozialen gaitasuna gutxi ematen denez, metodologia honek klasean lantzea proposatzen du. Proposatzen diren jardueren artean, mahaia-jolasak, asanblada, abestiak.... daude.
- Autonomia pertsonala: Ikasleei higiena mantentzen irakatsi behar zaie; kasu honetan baita, komuneko objektu guztien gainean nola erabiltzen den azaltzen duen pikto-prozesu bat ageri behar da.



3. irudia: Autonomia pertsonala garatzen laguntzen duen eredu bat.

- Otorduak: Autonomia garatzeko erabiliko dira; jarduera honen helburua jarduerak testuinguru baten barne ematea eta ikas-prozesua eraginkorragoa izatea. Beraz, gosari, bazkari eta afal ordua ikaskuntza jarduera gisa hartuko dira.

Beraz, aztertu den moduan, TEACCH metodologiak antolakuntza eta egunerokoari berezko garrantzia ematen dio haurraren ikas-prozesua egokia izan dadin. Dena den, honako metodologia aplikatzen den eanean, A.N.A elkarteak DENVER izeneko beste metodologia baten aplikapena burutu du bere elkarte eta eskolan.

TEACCH metodologia aztertuta, elkarteak erabiltzen duen beste metodologia bat azalduko da: DENVER.

DENVER metodologiari dagokionez, Sally Rogers eta Géraldine Dawsonek sortu zuten Estatu Batuetan 80ko hamarkadan. Programa honen bidez, ikasleen komunikatzeko gaitasuna, imitazioa, hitz eta keinuen bidezko komunikazioa, atentzioa, gaitasun sozialak eta jolasak lantzen dira.

Metodologia honek abantailak ditu: alde batetik, umeak txikiak direla eta zailtasuna goiz lantzen hasten dela; eta bestetik, arlo kognitiboa eta emozionalaren erabilpena. Metodologia hau 1-5 urte bitarteko umeengan erabiltzearen arrazoiak burmuinaren plastikotasuna da, hau da, burmuinaren egokitze eta ikasketarako gaitasuna. Ume txikiengan egiten den esku-hartzea goiz egiten baldin bada, jarrera sozial eta konplexua estimulatzea lortu daiteke, haren bizi kalitatea hobetuz. Dena den, A.N.A elkarteak, adien guztietan lantzen dute, hori bai, ume bakoitzari egokitua.

Honen bidez, autismoa pairatzen duten umeen bizitza soziala ahalik eta gehien bultzatu nahi da. Beraz, egunean zehar, komunikazioa beharrezkoa den jarduera eta ekintza ezberdinak proposatuko dituzte hainbat egoeretan. Modu honetan, umeak aukera ezberdinak izango ditu testuinguru ezberdinetan komunikazioa garatzeko. Autismoa pairatzen duen umerekin komunikatzerako orduan, heldua haurraren komunikazio mailara egokitu beharko da, hau da, komunikazioa sinkronizatua izan behar da.

Bestetik, umea bere garapenean aurrera egin dezan, egunean zehar lan ezberdinak proposatuko zaizkio. Lan horiek, paso sinpleetan banatuko dira, jarduera pixkanaka eta oztoporik gabe burutu dezan.

Metodologia honek azpimarratzen duen beste ezaugarri bat talde diziplinarteko baten garrantzia da, hau da, umearen garapen prozesuan familia, profesionalak... egotea. Honen bidez, autismoa pairatzen duen ume bakoitzari banakako programa bat ipini ahalko zaio, bere abileziak eta zailtasunak landuz (A.N.A, 2018).

Sally Rogersen esanetan, metodologia haur baten bizitzako arlo guztietan aplikatu behar da, hala nola, etxean, eskolan, jolastokian...Elkarteko profesionalek elkarteko familiei formazioa eskaini beharko diete, izan ere, familiak umeen sesio terapeutikoetan parte hartu behar dute. Modu honetan, profesionalekin ikasitakoa haien kabuz aplikatzeko gai izango dira haien seme-alaben egunerokoan. Dena den, ikaslearen testuinguruko pertsona guztiek metodologia ezagutzea izango litzateke egokiena, umearekin modu berean elkarlanean aritzeko. Beraz, aproposa izango litzateke eskolako profesionalei metodologia honen berri ematea, hiru testuinguru ezberdinetan berdina aritzeko (Sally J. Rogers, 2012).

Metodologiekin jarraituz, etorkizun gertu batean aplikatu nahiko duten beste metodologia berri bat aipatzea komenigarria da, hau da, DIR FLOORTIME metodologia. Metodologia hau 1979an garatu zuen Stanley Greenspana psikiatrak, zailtasun kognitiboak zituzten ikasleek interes emozionalak, elkarrizketak eta pertsonen arteko interakzioa garatu zezaten (Nora, Angiola Dcra, 2004).

Metodologia honen izenaren lehenengo zatian ageri diren lehenengo hiru hizkiak (DIR) prozesuan kontuan hartzen diren ezaugarri garrantzitsuenak biltzen dira (gaztelania hizkuntzan oinarrituak): D “garapena”, I “indibiduala” eta R “erlazioak”. Metodologia hau heldu-haurraren arteko hainbat saio laburretan (20-30 minutukoak) aplikatuko da, astean zehar 6-8 alditan burutuz. Sesio kopuruaren ezarpena, ume bakoitzaren beharren arabera izaten da, hala ere, umearen inguruko pertsona esanguratsuak bertan egotea komenigarria izaten da.

Ume bakoitzari proposatutako saioetan, hurrei epe luzean zehar gainditu beharreko helburu batzuk ezarriko zaizkio haren gaitasunak garatzen joateko. Helburu horiek lortzeko joko ezberdinak proposatuko dira, pertzepzioa, hizkuntza, psikomotrizitatea eta prozesu sentSORIALA garatu dezaten. Jokoa burutzen ari den momentuan haurra-helduen arteko interakzioa eman behar da, haurraren etengabeko garapenaren ebaluaketa egiteko eta helburu berri batzuk proposatu eta landu ahal izateko (Profectum foundation, 2017).

Metodologia honetan haurra jokoaren bidez estimulatzea du helburu bat; modu honetan elkartruke soziala eta emozioen erregulazioa landuko da. Hau dena ongi burutu ahal izateko, metodologiaren barne 5 etapa ezberdintzen dira:

1. Haurraren behaketa: Lehenengo etapa honen eginbeharrekoa haurraren behaketa eta haren emozioen egoera aztertu, zein momentutan dagoen zehazteko.
2. Hurbilketa: Etapa honetan helduak haurrari berarengana hurbiltzeko baimena eskatuko dio, pikto, keinuz edo hitzez eskatuta. Garrantzitsua da momentu honetan umeak baiezkoa ematea, jarduera osoan zehar motibatuta eta pozik egon dadin.
3. Haurraren interesen behaketa: Etapa honetan umeak jolastu behar du, heldua jolasteko baliabidea izanik. Metodologia honen lehenengo saioetan etapa honek berezko garrantzia izango du, izan ere, garrantzitsua da umeak bere emozioak kontrolatzea eta helduarekin harreman estu bat ezartzea.

4. Jardueraren gakoa: Bere interesak kontuan hartuta, umearen egunerokoa aldatzen saiatzen da, honako aldaketa nabarmen honek krisialdiak sor ez ditzan.
5. Komunikazioaren hasiera eta amaiera zehaztea: Etapa hau metodologiaren etaparik garrantzitsuena izanen da, izan ere, honen bidez, komunikazioan oinarritua dagoen munduan integratzen laguntzen zaio. (A.N.A, 2018)

Laburbilduz, lehen aipatutako DENVER eta TEACCH metodologietan baita DIR FLOORTIME metodologian ere, haur bakoitzaren erritmoak kontuan hartu eta errespetatzen dira. Hiru metodologi hauek autismoan komunak diren zailtasunak kontuan hartzen dira, hala nola, harreman soziala, komunikazioa eta kontaktu bisuala. Hiru teknika hauek umearen bizi kalitatea hobetzea dute helburu nagusia, baita haien eguneroko zailtasunei aurre egitea.

2.3.4 A.N.A elkarte, eskola eta familien arteko interakzioa.

Behin hiru entitate aktiboak banan banan aztertu direla, garrantzitsua suerta daiteke hiruen arteko interakzioa aztertzea, izan ere, aurrerago aurkeztuko den protokoloa zuzenean hauen arteko interakzioa sustatzea du helburu, haien arteko komunikazioa zehazki.

Lanean zehar aipatu den moduan, haur baten egoera aztertzen baldin bada, testuinguru ezberdin aunitz daudela ikusiko da, baina guzti hauek beti haur bakar baten inguruan. Testuinguru guzti hauek garrantzi handikoak izango dira ikaslearen garapenean, izan ere, testuinguru bakoitzak bere hezkuntzaren parte hartuko dute balore edota hezkuntza-pauta ezberdinak irakatsiz. Beraz, testuinguru bakoitzak ume berberari edukin ezberdinak irakasten baldin badizkio, haurrak bere egunerokoan kontraesanak aurkitu ahalko ditu. Horregatik, testuinguru ezberdinen arteko komunikazioa sustatzea garrantzitsua suertatzen da, eskaintzen zaion hezkuntza orekatua izan dadin.

Bonefenberrek 1990an bere teoria ekologikoan adierazi zuen moduan, pertsonak ez dira bere kabuz garatzen, baizik eta testuinguru ezberdinei esker.

Testuinguru bakoitzak bere baloreak eta arauak eskaintzen dizkio indibiduo bakoitzari. Gainera, pertsonen garapenean testuinguru hauen arteko interakzioak eragin sakona dute. Horregatik, garrantzitsua da testuinguruak interakzioan aritzea, geroz eta eragin positiboagoa izan ditzan pertsonarengan.

Haurren testuinguruaren artean eskola egoten ohi da, non profesionalak aritzen diren ikaslearen hezkuntzan parte hartzen. Horrela izanda, gainontzeko testuinguruak honekin elkarlanean aritu behar dira, beraz eskola izango da, gutxienez, familiaren testuinguruarekin harremanetan jarriko dena hezkuntza koordinatu bat eskaini ahal izateko. Kasu batzuetan, hezkuntzarekin elkar lotuta dauden beste zenbait testuinguru daude, beraz hauek ere eskolarekin elkarlanean aritzea garrantzitsua da. Eskolako profesionalek eskolako ikasleen familiekin komunikazioa sustatu behar dute, haiek adieraziko baitituzte ikasleen abileziak eta zailtasunak. Komunikazioa hori eman ahal izateko, eskoletan zenbait aukera ezberdin eskaintzen dira: Taldeko tutoretzak, aukera honetan eskolako tutoreak ikasturteko familiei bilera bat proposatuko die elkar ezagutzeko, helburuak azaltzeko eta lan modua adierazteko. Bestetik, banakako bilerak emango dira, honetan irakasleak ikasle baten familiarekin bilduko da, bilera honek zenbait helburu ezberdin izan ditzake, hala nola, familia ezagutzea eta ikaslearen testuingurua hobekiago ulertzea, etxeko arazoak behatzea, familiaren arteko erlazioa... Aukeren artean, eskolako ate irekien jardunaldia egon beharko litzateke, izan ere, egoera honetan familiek ikusiko dute eskolaren lan metodologia eta ikasleen egunerokoan eskaintzen zaiena. Azkenik, beste aukera bezala, komunikazio baliabide ezberdinak eskaintzea da; kasu honetan, familiekiko komunikazioa sakonagoa izan dadin, komunikazioa sustatzen duten tresnak erabiliko dira: agenda, eskolako web-guneak, protokoloak, deiak...

Orain arte, ikaslearen testuingurutzat bi aztertu dira nagusiki; eskola eta familia. Aipatu beharra dago ikasleek testuinguru bat baino gehiago izan dezaketela, baita hezkuntza arloan baita. Honen adibide garbi bat lanean zehar aztertutako umeak dira, hots, autismoapairatzen duten haurrak, A.N.A elkartean dauden umeak bereziki. A.N.A elkartean dauden haurrek hezkuntzan parte hartzen duten hiru testuinguru ezberdin izaten dituzte, hala nola, eskola, familia eta Nafarroako Autismo elkarte. Ikasle hauek, lanean zehar aipatu denez, egunerokoaren estruktura finko bat behar dute ahalik eta

krisialdi gutxien jasotzeko; beraz, garrantzitsua da hiru testuinguru ezberdinetan ahalik eta errutina berdina jarraitzea, baita hezkuntza pautak berdinak ere.

Primeran egongo litzateke, eskolako bileretan ikaslearekin aritzen den A.N.A-ko profesionala(k) egotea. Modu honetan, hiruen arteko komunikazioa zuzena izango litzateke eta zalantzak, kezak, beharrak eta erantzun posibleak elkarrekin aztertu ahalko zituzketen. Gaur egun hiru entitate aktibo zuzenean koordinatzea zaila da, gehien bat denbora ezagatik. Horregatik, komunikazioa sustatzen duten beste baliabideak sortu behar dira, nahiz eta hiru entitate aktiboak fisikoki ez egon informazioa partekatu ahal ditzaten. Lehen aipatu diren zenbait baliabide (protokoloak, web-guneak, korreoak...) erabili ahal izateko ez da beharrezkoa talde ezberdinak elkarrekin egotea, izan ere, bakoitzarentzako proposa den lekutik beste taldeekin informazioa partekatu ahalko du interneteri esker eta errazagoa egingo zaie hezkuntza koordinatu bat eskaintzea. Dena den, on line dauden baliabideak erabilia behar baldin badira, proposa izango litzateke baliabide jarraibide batzuk izatea, informazioa zehaztuagoa partekatu ahal izateko, ikaslearen beharrei erantzunak ahalik eta egokienak eskaini ahal izateko.

Eskolari dagokionez, familia, A.N.A edota beste testuinguruekin komunikatzeko konpromezua hartu behar du hezkuntza komunitatearekin, azken finean, hezkuntza kalitatea hobetzeko asmoz. Testuinguru ezberdinen artean hezkuntzarentzat mesedegarria den klima bat sortu behar da, ez dira banaka lan egiten duten entitate aktiboak, baizik eta taldean aritu behar diren partaideak, pertsona ezberdinen formakuntza hobetzeko helburuarekin.

“Dos contextos y un solo niño” artikuluan aztertu denez, familiaren testuinguruan ikasleek haien lehenengo ikaskuntza pausuak ematen dituzte, beraz, ikasleak eskolan sartzerakoan garrantzitsua da familia-eskola erlazioa garatzea, eskolako etapa ezberdinetan zehar. Ikaslearen ikaskuntza prozesua ez da oztopatzen beste testuinguru (A.N.A adibidez) batean sartzerakoan, izan ere, testuinguru bakoitzak balore kultural, jarrerazko arauak eta ezagutza berriak irakasten zaizkio, ikaslearen garapen prozesua aurrera jarraituz (Ignasi Vila, 1998).

Kontuan izan behar dugu, nahiz eta eskolan profesionalak aritu, ez dela soilik ikuspuntu profesionala balio, izan ere, aurkituko diren familien artean aniztasun ugari

egongo da, sinesmen, ikuspuntu, helburu eta hezkuntza kontzeptu ezberdinak izango dituztenak. Horren aurrean, egora ezberdin bakoitzari egokitzen ikasi behar da, testuingurua aztertu eta proposamen ezberdinak kontuan hartu. Modu egoki batean aritzeko, testuinguru ezberdineko pertsonak entzun beharko dira, konfiantza sustatu eta harreman onak sustatu, zailtasunei talde bakar bat bezala erantzun ahal izateko. Modu honetan, ikaslearen hezkuntzan sakonago aritu ahalko da, ikasleari onura aunitz eraginez.

Laburbilduz, hezkuntza sustatzen duen komunitate bat sortu behar da, argi egon behar dira sustatu nahi diren baloreak Haur eta Lehen Hezkuntzako etapetan zehar etorkizuneko gizartea hobea izan dadin, hots, solidarioagoa, demokratikoagoa, inklusiboagoa.... Horretarako garrantzitsua da testuinguru ezberdinen arteko elkarlana eraginkorra eta koordinatua izatea, ikasle bakoitzak testuinguru ezberdinetan balore, hezkuntza-pauta eta arau berdinak ikasteko eta haien arteko kontraesanak ez aurkitzeko.

3. Protokoloaren beharra.

3.1 Zer den eta zertarako balio du.

Protokoloaren erabileraren garrantzia ulertu ahal izateko, lehenik eta behin garbi izan behar dugu zer den protokolo bat. Protokolo mota ugari aurkitu ahal ditzakegu gure egunerokoan, dena den, puntu honetan azalduko den protokolo mota pedagogia terapeutikoarekin zer ikusia duena izango da, lanean zehar PT protokoloaren irizpideak zehaztu eta azaldu baitira.

Aipatu den moduan, pedagogia terapeutikoko arloan, behar bereziak dituzten pertsonekin lanean aritzen dira zenbait profesional pertsona horien beharrei ahalik eta erantzun egokiena eman ahal izateko. Beraz, behar horiei erantzun ahal izateko, pertsona baten gaitasunak eta zailtasunak aztertu eta behatu behar dira (diagnostiko baten bidez), geroago hezkuntza-pauta egokiak ezarri ahal izateko (Daniel Montoya,2016); horien jarraipen egokia egiteko, protokoloak beharrezkoak dira, izan ere, hauraren berezitasunak edota zailtasunak ezartzen dira eta profesionalek behar horiei helburu ezberdinak ipini ahal dizkiete ikasturtean zehar ikaslearekin landu ahal izateko. Dena den, oraingoan sortutako protokoloaren helburua ikaslearen ezaugarriak

adieraztea baino gehiago du helburu, hots, ikaslearen testuinguruko partaideen arteko komunikazioa sustatzea, hezkuntza-pautak hiru arloen artean ezartzeko eta horiek testuinguru ezberdinetan lantzeko, ikaslearen ikas-garapenean eragin sakonagoa izan dezaten.

Beraz, lanean zehar azaltzen den bezala, protokolo honen helburu nagusia eskola, familia eta elkarteen arteko komunikazioa hobetzea da; PT protokolo baten laguntzaz. Hiru entitate aktibo hauen arteko komunikazioa sustatzea ezinbestekoa da, izan ere, haien arteko komunikazioa sakonagoa baldin bada, haien arteko koordinazioa handiagoa izango da eta horrek haurren eguneroko garapenean eragin sakonagoa izango da. Partaide bakoitzak haurren egunerokoan aztertu eta behatutakoa protokoloan zehazten baldin badu, gainontzeko entitate aktiboek horiek baloratzeko aukera izango dute eta ikasleari proposatu beharreko hezkuntza-pautak eraginkorragoak izatea ahalbidetuko du.

Protokoloari esker, hiru arloek haien testuinguruan behatutakoa ezartzeko aukera izango dute, beste partaideei ebaluatutakoa ikusteko aukera eskainiz eta haien artean koordinazio sakonago bat izanez.

3.2 Metodologia eta baliabideak

3.2.1. Zer da Metodo Zientifikoa?

Ikerketa bat egiterako orduan, interesgarria suertatzen da modu sistematiko, kontrolatu, enpiriko eta kritiko batean egitea; izan ere, ikerketa bat egin baino lehenagoko ideiak zehaztugabeak izan daitezke eta ez da objektibitatea eskaintzen. Horregatik, ikerketa baliagarria izateko, Metodo Zientifikoa lagungarria izan daiteke, metodologia honek eman beharreko zenbait fase zehazten baititu:

Lehenik eta behin, interesa pizten duen gertaera bat behatu behar da zenbait alditan, ahalik eta ideia gehien lortzeko. Behin gertaera behatu dela, gertatukoari buruzko hipotesiak sortuko dira, hau da, bakoitzak gertatutakoaren interpretazioa burutuko du, egiazat ezer ez hartu gabe. Hipotesi hauek geroago egin beharreko esperimenduak egitera bultzatuko dute, proposatutako hipotesiak baliagarriak den edo ez zehazteko. Esperimenduekin batera teoriak aipatu behar dira, hauek bi proposatutako

hipotesien baliagarritasuna zehazteko aukera gehiago eskainiko baitituzte. Behin esperimentatu eta teoria ezberdinekin alderatu dela gertatutakoa, proposatutako hipotesiak baliagarriak diren edo zehaztuko dugu. Behin hori eginda, esperimentuen bidez lortutako datuak alderatuko dira eta ondorioak aterako dira. Behin prozesu guztia burutua dagoela, ikerketa guztia txosten batean garatuko da (Karina Mora, 2006).

Azaldutako prozesu garatu ahal izateko zenbait elementu beharrezkoak dira:

- Subjektua: Ikerketa burutuko duen pertsona edo taldea; honek lanean zehar ezagutza berriak eskainiko ditu.
- Objektua: Behatuko den gertaera edo elementua.

Azkenik, Metodo Zientifikoa epe luzean aplikatu beharreko prozesu bat dela azpimarratu behar da, izan ere, denbora behar da ikertu beharreko guztia zehaztasunez aztertzeko eta harekin esperimentatzeko. Modu berean prozesu sortzaile bat dela esan daiteke, bertan espero ez ziren zailtasunak eta oztopoak ageriz.

3.2.2. Jarraitu den metodoaren azalpena.

Ikerketa bat egiterako orduan garrantzitsua da metodologia zehatz bat jarraitzea, izan ere, finkatuta dauden pausoak jarraitzerakoan modu egokiago batean burutu dezakegu garatu nahi den ikerketa. Lanean zehar azaldu den moduan, lan honen helburu nagusia familia, eskola, eta elkartearen arteko komunikazioa hobetzeko PT protokolo bat sortu nahi da; horrela izanda, behin lanaren helburua eta noranzkoa jakinda, lan enpirikoa dela esan daiteke; beraz, Metodo Zientifikoaren aplikapena posiblea izan da.

Hasieratik, Metodo Zientifikoak proposatzen zituen fase ezberdinak burutzen hasi ziren, hau da, behaketa, hipotesiak, esperimentazioa eta teorien azterketa, datuen alderaketa, ondorioak eta txostenaren garapena. Behaketa proiektuarekin hasi baino lehen eman zen, izan ere, proiektua azaroan hasi zen eta behaketa 2017ko udan eman zen; *udako eskola* proiektua bertan garatzen baita. Behin komunikazioari buruzko ikerketa bat egingo zela zehaztu zenean, komunikazio eza falta horren inguruko hipotesiak proposatu ziren, nahiz eta egia edo gezurra ziren ez jakin. Beraz, hipotesi horiek baliagarriak ziren edo ez jakiteko, lan enpirikoek erabiltzen dituzten zenbait baliabideak erabili ziren, inkestak eta elkarrizketak esate baterako.

Lanaren helburua proposatu zenean, hau da, eskola, familia eta A.N.A elkartearen arteko komunikazioa hobetzeko PT protokolo bat sortzea adostu zenean, bertan parte hartuko zuten entitate aktiboei lehenengo inkesta bidali zitzaien. Inkesta horretan, protokoloan ageri beharreko edukien inguruko zenbait galdera adierazi zitzaizkien. Modu honetan, partaide bakoitzak zein motatako beharrak antzematen zituen aztertu ahaliko zen; eta protokoloa sortzerako orduan horiek kontuan hartu ahal izateko.

Beste baliabide bat, lehen aipatu bezala, elkarrizketak izan ziren. Elkarrizketak baliabide indibidualizatuagoa zela esan dezakegu, izan ere, pertsona edo talde zehatz bati egiten zitzaion eta. Lan honetan zehar, alde batetik, A.N.A elkartean parte hartzen duten lau familiei egin zitzaien; elkarrizketa honen helburua, haien kezkek eta beharrak entzutea zen, haien seme-alaben bizi kalitatea nola hobetu zitekeen planteatu ahal izateko. Aukera honen bidez, autismoa pairatzen duten umeen testuingurua gertuago bizi izan zen, izan ere, elkarrizketan informazioa partekatzen zuten elementu asko antzeman ahal izan ziren, hala nola, hitza, emozioa edota keinuen bidezko komunikazioa; familien eguneroko biziak hobekiago ulertuz.

Beste elkarrizketa batzuk, A.N.A elkarteko zenbait profesionaleri egin zitzaien; hala nola, gizarte langileari, zuzendariari, irakasle eta psikologo bati. Elkarteari esparru ezberdinetako galderak planteatu zitzaizkion, hala nola, haien lan metodo, komunikazioaren garrantzia eta umeen testuinguruari buruzkoak. Honen bidez, A.N.A elkarteko beharrak aztertu ziren eta protokoloaren bidez zein arlo hobetu zitezkeen planteatuz.

Azkenik, umeen azkeneko testuinguru bat aztertu zen, hots, hezkuntza zentroak. Elkarrizketak bi zentro ezberdinetan proposatu ziren: IP Mendigoitin eta Colegio Izagan. Bi eskola hauen hautaketa bi hezkuntza-zentro ezberdin aztertzeagatik izan zen; IP Mendigoiti publikoa izanik eta Colegio Izaga pribatua izanik. Honen helburua zentroen beharrak aztertzea zen; horretarako, proposatu zen elkarrizketa esparru ezberdinei buruzko galderak proposatzen zituen: baliabideak, HPB-ak zituzten ikasleekin izandako esperientzia, beste testuinguruekin izaten duten komunikazioa maila eta metodologia.

Hala ere, nahiz eta ikerketa enpirikoek honako bi baliabideak azpimarratzen dituen, lanean zehar aurrerago azalduko diren beste zenbait baliabide erabili ziren protokoloaren sorrerarako.

Beraz, esan daiteke, elkarrizketen bidez protokoloa sortzea ahalbidetu dela; izan ere, baliabide honi esker beharrezkoak ziren datuak lortu dira, hiru testuinguru ezberdinen hausnarketak kontuan izanik. Partaide ezberdin elkarrizketak aztertu zirenean, behar eta kezka orokorrak planteatu ziren, eta talde partaide bakoitzaren pertsona batekin protokoloan ageri beharreko itemak eta planteamendua proposatu zen.

Azkenik, Metodo Zientifikoak proposatzen dituen pauso guztiak bete direla, informazio guztia biltzen duen txosten bat idatzi da; protokolo sorreraren zergatiak eta noranzkoak ulertu ahal izateko.

3.2.3 Baliabideak

Protokolo bat burutzerako orduan kontuan izan behar dugun lehenengo ezaugarria pertsonekin elkarlanean ari garela izan behar da. Horretarako, protokoloa sortu baino lehen, Espainiar Estatu mailan indarrean dagoen Datuen Babes legea¹¹ aztertu beharra dago, Abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoa Izaera Pertsonaleko Datuak Babesteari buruzkoa zehazki, ikasleen eta entitate aktiboen pribatasuna mantentzeko. Sortu beharreko protokoloan ikasle eta entitate aktibo ezberdinen datuak adieraziko dira; gainera, datu horiek interneten egongo dira, sortutako protokoloa *on line* baita. Beraz, interesgarria da legeak esaten duena ongi ulertzea, protokoloa sortzerakoan partaideen datu babesa egokien prestatu ahal izateko.

Datuen babes legeak helburu zehatz asko ditu, dena den, helbururik nagusiena pertsona fisikoen askatasun publikoak eta oinarrizko eskubideak bermatu eta babestea da, norberaren zein familiaren ohorea eta intimitatea errespetatuz. Horregatik, protokoloa sortzerako orduan kontuan hartu behar dugu ikasleen datu guztiak babestuta daudela eta bertan txertatutako datuak soilik protokoloaren barne erabiltzen direla, hau da, bertan ezarritako informazioa soilik parte hartzen duten entitateek erabili ahalko dituzte adostutako eremuan. Horrela izan da, protokoloa erabiliko duten familia

¹¹ Datuen babes legea: https://www.boe.es/sede_electronica/informacion/proteccion_datos.php

eta profesional guztiek konfidentziasun dokumentua sinatu beharko dute, datuen beste erabilpenik ez dutela egingo konpromezua hartuz.

Legeari erreferentzia eginez, datuak eskaintzen duen pertsonak edo pertsona horren gurasoak edota tutoreek zenbait eskubide dituzte legearen aurrean, hala nola, beraiek erabakiko dute noiz arte eskaini nahi dituzten datuak eta edozein momentuan emandako datuak aldatu ahalko dituzte inolako oztoporik izan gabe. Bestetik, gainontzeko partaide aktibo guztiek idatzitako informazio guztia irakurtzeko aukera izango dute, hots, protokoloan zehar zehaztutako informazio guztia eskatu eta doan lortzeko eskubidea izango dute.

Protokoloan zehar, administrazio publikoak (zenbait eskola) eta pribatuak (zenbait eskola eta A.N.A elkarteak) elkarlanean arituko dira. Administrazio hauei dagokienez, ezin izango dute lortutako datuak beste administrazio publiko edota pribatuei eskaini, hala ere, datuak eskaintzen dituen indibiduoek onartzen baldin badute, haien arteko informazioa elkartrukatu ahalko dute. Beraz, protokolo honen kasuan, familia izango da datuen erabilpena kontrolatuko duena, hau da, familiak erabakiko du zein administrazioei datuak ahalbidetuko dizkie. Ikaslearen beharrei erantzuna eman ahal izateko, eskola eta elkarteak datuak ahalbidetzea aproposena izango litzateke, sustatu nahi den koordinazioa eta elkarlana ahalik eta egonkorrena izateko.

Behin protokoloan erabili beharreko datuak nola babestuko diren adostuta, beste baliabide ezberdinen erabilpena eman da. Protokoloaren sorkuntzarekin jarraitu ahal izateko, aurretik azaldu den moduan, inkesta eta elkarrizketa ezberdinak gauzatu dira. Bi baliabide hauek familia, eskola eta elkarteko profesionalekin erabili dira, izan ere, ikasleen testuinguru ezberdinak ezagutzea eta aztertzea zen helburu. Alde batetik, inkesta¹² bat bidali zitzaizen hiru entitate aktibo ezberdinei protokoloan ageri beharreko atalak zehazteko, honako galdera hauek proposatuz:

- Galdera berdina baina partaide ezberdinei bideratutako galdera bat, honakoa izan zen: Hauraren garapenean elkarlanean dabilzaten profesionalen arteko

¹² Gehigarrietan, lanaren amaieran, inkesta bere osotasunean ikus daiteke.

komunikazioa hobetzeko, zein nolako arloak komunikatzea gustatuko litzaizueke?

- Informazioa zein modutan jasotzea gustatuko litzaizueke?
- Nola gustatuko litzaizueke jasotako informazioa adieraztea?
- Informazioa zenbatero jaso nahiko zenukete?

Galdera hauen bidez, protokoloaren diseinua prestatu zen. Hasiera batean ikasleen beharrak aztertu ziren eta gero ikaslearen testuinguru ezberdinen partaideen beharrak. Beraz, galdetegiari esker, on line protokoloaren diseinua ahalbidetu zen, ahalik eta zehatz, eraginkor eta zehatz sortuz.

Bestetik, elkarrizketak egin dira partaide ezberdinei: autismoa pairatzen duten umeen lau familiei, Mendigoiti eskola eta Colegio Izagako PT-ei eta A.N.A-ko zuzendari, gizarte langile, irakasle eta psikologo bati. Bi baliabide hauen bidez, testuinguru bakoitzeko beharrak eta baliabideak aztertzeko aukera izan da, haien arteko komunikazioa nola sustatu daitekeen ahalbidetuz.

Lau familia ezberdinei bideratutako galderak zehatzagoak izan ziren, zeinetan familia bakoitzaren egoerari buruz arlo ezberdinak aztertu ziren, protokoloaren bidez beraien beharrei ahalik eta erantzun aproposena eman ahal izateko. Hauek izan ziren proposatu ziren galdera edota eztabaidak:

- Zuen seme-alabak zein eskolara joaten dira; publikora edo pribatura?
- Zuen seme-alabak ohiko eskolara edo hezkuntza bereziko eskolara doazte?
- Zein profesionalak aritzen dira zuen seme-alabekin elkarlanean?
- Uste duzue eskolako profesionalek beharrezko formakuntza dutela, autismoa pairatzen duten ikasleekin aritzeko?
- Uste duzue interesgarria suerta daitekeela zuen seme-alaben klasean autismoa zer den eta horren ezaugarriak azaltzea?
- Eskolatik kanpo, zuen seme-alabek laguntza jasotzen dute?
- Laguntza ekonomikoak jasotzen dituzue?
- Uste duzue jasotako diru laguntzak nahikoak direla behar guztiak asetzeko?

- Uste duzue elkarteak gure gizartean garrantzitsuak direla?

Eskola ezberdinetako PT-ei egindako galdetegi berdina izan zen, izan ere, galdetegi honen helburua eskola ezberdinen zerbitzuak, materialak eta formazioa aztertzea zen, autismoa pairatzen duen ikasle baten egoerari aurre egiteko modua nolakoa zen jakiteko. Honako galdera hauek proposatu zitzaizkien:

- Zenbat ordu egiten duzu lan Mendigoiti/Izaga ikastetxean? Uste duzu ordu horiek nahikoak direla zure lana ongi burutu ahal izateko?
- Zenbat profesionalak eskaintzen duzue laguntza HPB-ak dituzten ikasleei?
- Zenbat ikasle ditu Mendigoiti ikastetxeak eta zenbatei ematen diezu laguntza?
- Zeintzuk dira bete beharreko baldintzak ikasle batek profesionalen laguntza jasotzeko?
- Noizbait autismoa pairatzen duen ikasleren bat izan duzu? Ze etapetan zehar?
- Uste duzu zure zentroko profesionalak ezagutza nahikoa dutela autismoari buruz?
- Imaginatu Mendigoitiko gela batean autismoa pairatzen duen ikasle bat dagoela, interesgarria izango litzake bertako ikasleei autismo zer den azaltzea?

Azkenik, A.N.A-ko langile batzuentzat galdetegi bat prestatu zen, modu honetan, elkartean burutzen diren jarduerak, ikasle, familia eta profesionalen behar/erantzunak behatu eta baliabide eta zerbitzuak aztertu ziren. Honako hauek izan ziren A.N.A elkarteari proposatutako galderak:

- Zer nolako diru laguntzak jasotzen dituzue?
- Uste duzue jasotako diru laguntzak nahikoak direla behar guztiak betetzeko?
- Jasotako diru laguntzak zertarako erabiltzen dituzue?
- Zuen elkartean adin ezberdinetako ikasleekin egiten duzue lan, zein adinarekin hasi eta zein adinarekin bukatzen dute A.N.A-ko bidea?
- Uste duzu eskoletako profesionalak ezagutza nahikoa dutela autismoari buruz?
- Imaginatu eskola bateko gela batean autismoa pairatzen duen ikasle bat dagoela, interesgarria izango litzake bertako ikasleei autismo zer den azaltzea?
- Uste duzue testuinguruen arteko komunikazioa garrantzitsua dela? Zergatik?
- Zenbat profesionalak osatzen duzue A.N.A elkarteko taldea?

- Zeintzuk dira erabiltzen dituzuen metodologiak?
- Zer motatako komunikazioa duzue gainontzeko testuinguruekin (familia, eskola...)

Honekin batera, Mendigoiti eskolako PT-ari laguntzari esker, protokoloa autismoa pairatzen duten ikasleak ebaluatzeko baliabide gisa bezala erabiltzeko aukera egotea adostu zen; beraz, protokoloan proposatuko diren item guztiak ikasleak ikasturtean zehar lortutako helburuak zehazteko aukera egongo da. Ikaslearen ebaluazioa nolako izango den adierazteko, PT-ak erabilitako zenbait ebaluazio txosten ahalbidetu zizkidan, autismoan oinarritutakoak. Beraz, Haur eta Lehen Hezkuntzako curriculumean eta ebaluazio txostenetan oinarrituta, protokoloaren edukiak garatu ziren.

Ebaluatzeko baliabideekin jarraituz, A.N.A elkarteak *anamnesis*¹³ deituriko dokumentua eskaini zuen. Elkarteak eskainitako dokumentu hau, profesionalak familia berriei eskaintzen dieten galdetegia da, bertan seme-alabak dituen gaitasunak eta zailtasunak adierazi ahal izateko eta etorkizunean egokitasunez umearekin elkarlanean aritu ahal izateko. Dokumentu horretan aipatzen diren galderak, profesionalentzat garrantzitsuak diren esparruak adierazten dira; horregatik, garrantzitsua suertatu da protokoloa zenbait arlo garatzeko, izan ere, horri esker profesionalen ezagutza kontuan izateko aukera egon da.

Baliabide guzti hauek kontuan hartuta, autismoa pairatzen duten ikasleen garapena bultzatzeko, eskola etapan zehar landu beharreko zenbait item proposatu dira. Proposatutako helburuak, oinarritzko bost gaitasunen arabera dira, hala nola, gaitasun komunikatiboa, soziala, afektiboa, kognitiboa eta psikomotorra. Protokoloan entitate aktibo bakoitzari helburu ezberdinak prestatu zaizkie testuinguru ezberdinetan ikaslearekin lantzeko, nahiz eta entitate guztietan gaitasun berdinak landu.

Lana burutzerako orduan integrazioaren kontzeptua ezin dezakegu ahaztu, izan ere, gaur eguneko pertsonak eskubide berdinak izan behar dituzte haien eguneroko bizitzan, horien artean, hezkuntzaren arloan. Gizarteko ume askok HPB¹⁴-ak izaten dituzte, hala ere, hauek haur neurotipikoak bezala eskubideak dituzte, horien artean, kalitatezko

¹³ Anamnesis: Diagnostiko bat burutzeko behar diren datuak biltzen duen dokumentua.

¹⁴ HPB: Hezkuntza premia bereziak.

hezkuntza bat jasotzea. Dena den, eskubide horiek hobekiago ezagutzeko, Abenduaren 9an argitaratutako 8/2013 Lege Organikoa hezkuntza kalitateari buruzko legediari erreferentzia egin behar diogu, izan ere, bertan adosten dira zeintzuk izango diren gizartean bizitzen diren umeen eskubideak.

Lege honek bultzatu nahi duen helburu nagusia honakoa da: ekitatea; hezkuntzaren bidez guztien arteko berdintasuna sustatzen duena, hezkuntza inklusiboa, eskubideen eta aukeren berdintasuna eta hezkuntzan aritzeko eskuragarritasun unibertsala; pertsonen arteko ezberdintasunak kontuan hartzea, kulturalak, ekonomikoak, sozialak eta desgaitasunak pairatzen dituztenak.

Aurreko adierazpena kontuan hartuta, protokoloaren sorkuntzaren bidez haurren hezkuntza kalitate handiagokoa izatea lortzeko helburua planteatu zen; horregatik, lana burutzen zen einean haurren testuinguru eta behar ezberdinak aztertu dira, ahalik eta erantzun egokiena emateko, haien bizi kalitatea hobetzeko intentzioarekin zehazki.

Legeari erreferentzia egiten jarraituz, bertan aipatzen den beste kontzeptu interesgarri bat haurren gaitasunei buruzkoa da, hau da, ikasturtean zehar lortu beharreko helburuei buruzkoa. Aurretik aipatu den bezala, autismoa pairatzen duten ikasleek, normalean, ezin dezakete ikasle neurotipikoen ikas-prozesua jarraitu eta haien curriculumean egokitzapenak egiteko beharra sortzen da. Beraz, legedian irakurri daitekeen moduan, ikasle guztien gaitasunak modu integratu batean aplikatu beharko dira ikasketa ematen den testuinguru guztietan ikasle guztiek ikasturteko helburuak lortu ahal izateko, bakoitzaren beharrak eta abileziak kontuan hartuta.

Legediak aipatzen duen orduan, ikasturtean zehar garatzen diren gaitasun horiek ebaluatu beharko dira, aurrerapenak edo atzerapenak dauden aztertu ahal izateko. HPB-ak dituzten ikasleen kasuan, kurtsoan zehar curriculum egokitzapenak izaten dituztenez, haien ebaluazio prozesua ezberdina izatea ahalbidetzen da. Horretarako malgutasuna eta metodologia alternatiboen erabilpena onartuko da; hori bai, nahiz eta ikasleei egokitzapenak egin ikasturtean zehar, horiek ez dute zertan eraginik izango ikasleen gaitasunak ebaluatzerako orduan, izan ere, ikasle bakoitzaren beharrak eta gaitasunak bereziak direla adostu da aurretik.

Azkenik, legedia alde batera utzita eta lanean zehar erabilitako baliabideetara bueltatuz, lanean zehar familiei eskaini zaizkien tresnak aipatu behar da. Proiektuan zehar, familiari buruz informazioa eskaintzen duen puntuaren barne (2.3.1 Las familias) familiek autismoa pairatzen duen seme-alaba bat izango dutela dakitenetik datozen etapak azaltzen duen taula bat topatuko dute; honako taula gurasoentzat erabilgarria izan daiteke, haien egoera eta etorkizuneko egoerak ezagutzeko eta ulertzeko. Puntu horretan zehar, gurasoentzat orientabideak eskaintzen dira, hala nola, egoera berri horren aurrean egin beharreko gomendio batzuk haien eguneroko bizitzan orientabide edota laguntza handiagoak izan ditzaten.

Laburbilduz, protokoloaren proiektua aurrera eraman ahal izateko, beharrezkoak diren baliabide ezberdinak erabili eta aztertu dira. Modu honetan, protokoloak ikasleen beharrei ahalik eta erantzun egokiena emango die, haien hezkuntza kalitatea areagotuz. Bestetik, baliabideen artean, familientzat erabilgarriak edota lagungarri izan daitezken zenbait orientabide taula txertatu dira; horrela izan da, gurasoek desgaitasunaren berri izaterakoan zeharkatuko dituzten etapa ezberdinak ulertu eta aztertzeke aukera izango dute.

3.3 Protokoloaren azalpena

Gradu bukaerako lan honetan proposatu den protokoloa, izenburuan aipatzen den bezala, familia, eskola eta A.N.A elkartearen arteko komunikazioa hobetzeko protokolo bat sortu nahi da. Garrantzitsua da autismoa pairatzen duen ikasle baten egunerokoan aritzen diren pertsonak bere garapenaren berri izatea, ahalik eta egokien haren garapen ebolutiboan lagundu ahal izateko. Gehien batean, ikasleak mugitzen diren testuinguru nagusienak familia eta eskola izaten dira, baina kasu batzuetan, Iruñean edota Iruñetik kanpo bizitzen diren zenbait ikasleen testuinguruen barne A.N.A elkarte dago, izan ere, bertan ikasleak psikologoekin elkarlanean aritzen dira haien garapenari aurrerapena emateko. Beraz, hiru entitate aktibo horiek ikasleen beharrei ahalik eta erantzun zuzena eta koordinatuen eman ahal izateko, interesgarria suertatzen da haien arteko komunikazioa ona izatea, hezkuntza-pautak elkartrukatzeko eta ikaslearekin arlo berdinak landu ahal izateko.

Sortutako protokoloa azaldu baino lehen, garrantzitsua suerta daiteke protokoloa diagnostikoaren berdina ez dela aipatzea. Diagnostikoa, ezagutza

eta analisia bultzatzen duen metodoa da; honakoa barne edo kanpo entitateek burutzen dute aurrerago hartu beharko diren erabakiak errazteko helburuarekin. Diagnostikoa antolakuntza edo proiektuaren aurreko ikasketa bat da, informazioa biltzen duena eta interpretatzen duena eta ondorioak eta hipotesiak ateratzen laguntzen duena. Hala ere, diagnostikoaren beharra garrantzitsua da, izan ere, errealitatea ongi ezagutzea ahalbidetzen du, eta horren arabera erabaki batzuk edo beste emango dira. Diagnostikoan planteatutako hipotesiak adieraziko dira eta bertatik gure etorkizuneko lana planteatuko da. Hori dela eta, diagnostikoa oker burutzen baldin bada, egindako esku-hartzea okerra izango da (Andrade de Souza, 2014).

PT protokoloa, aldiz, behin diagnostikoa eta zailtasunak aztertuta zenbait helburu proposatzen ditu beharrei erantzun ahalik eta zehatzenak emateko xedearekin (Montoya, D. 2016). Modu egoki batean aritzeko, partaide guztien arteko koordinazioa sustatu behar da eta horretarako partaideen arteko komunikazioa garrantzia du.

Bi kontzeptuen horien arteko ezaugarriak kontuan hartuta, lan honetan proposatutako protokoloa sortu da. Alde batetik, autismoa pairatzen duten ikasleen zenbait diagnostiko aztertuz, ikasleen ezaugarriak eta zailtasunak aztertzeko helburuarekin. Behin hori izan da, protokoloan ageri beharreko helburuak planteatu ziren oinarritzko bost gaitasunak kontuan harturik. Behin helburuak planteatuta, ikaslearen inguruko partaideen arteko komunikazioa garatzeko aukera ezberdinak proposatu ziren; *on line* protokoloa sortuz.

Protokoloa *on line* sortzearen ideia proposatu zenean, informatikari baten laguntzaren beharra ikusi zen; izan ere, nik ez neuzkan izan beharreko baliabide nahikorik nire kabuz Interneten protokoloa txertatzeko. Honen aurrean, NUPen Ingenieritza Informatikoaren Gradua bukatzen ari den Diego Garcia Garcia ikaslea bolondres aurkeztu zen, berak NUP¹⁵-en lau urteetan zehar jaso dituen ezagutzei esker, protokoloa sortzeko eta interneten ipintzeko baliabide eta gaitasun nahikoak zituen.

Beraz, biak elkarlanean aritu gara ikerketa lan hau aurrera eraman ahal izateko. NUP-eko Informatikaria den Jon Legarrea irakasleak, Diegok protokoloa Internet-en

¹⁵ NUP: Nafarroako unibertsitate publikoa

ipintzeko beharrezkoa zuen zerbitzaria berari eskatu genion; protokoloaren sorreran parte hartuz; horretarako, hirurak bildu ginen eta zerbitzariak izan beharreko ezaugarriak zehaztu genizkion. Behin bileran protokoloa sortzeko beharrezkoa zen guztia zehaztu zela, Jon Legarreak zehaztutako zerbitzaria sortu zuen eta Diegorekin partekatu zuen. Behin Diego Garciak zerbitzarian sartzeko baimena zuela, sortutako protokoloa Interneten zintzilikatu zuen; familia, eskola eta elkarteak jaso eta erabil zezaten.

Diego Garcia eta biok jarraitutako prozesua protokoloa hemen zehazten da:

Hasiera batean, A.N.A elkartean aritzen diren ikasle bakoitzari izen eta pasahitza bat atxikituko zaio. Ikasle bakoitzak erabiltzaile bana izango du, eta haren inguruko entitate aktiboei eskainiko zaizkio, hau da, eskolako profesionalei, ikaslearen guraso edo tutoreei eta A.N.A-ko profesionalei. Ikasle bakoitzari erabiltzaile eta pasa-hitza ezberdin bat atxikitzearen arrazoi nagusia pertsona bakoitzaren datuen babesa izan da, datuen babes legeak adierazten duen moduan pertsona bakoitzak haren datuak modu pribatuan eskaini ditzake, bakarrik datuak eskaintzen dituen pertsonak edota guraso/tutoreek erabakitako pertsoneri erabiltzeko aukera eskainiz. Beraz, modu honetan, erakundearen erabiltzaileak izango dira bakarrak bazkideen datu guztiak ikus ditzaketanak, izan ere, familiak eta eskolako partaideak soilik haren seme-alaba edota ikasleen ezaugarriak ikusi ahalko dute.

1. irudia: Ikasle baten erabiltzailea eta pasahitza sartzeko.

Behin partaide aktiboren batek ikaslearen erabiltzailean sartu duelarik, hiru pikto ezberdin aurkituko ditu, hala nola, familia, eskola eta elkartearena. Horrela izanda, segun eta ikaslearen inguruko zein partaide sartu den protokoloaren barne pikto bat edo beste sakatu beharko du.



2. irudia: Ikaslearen zein partaideak txertatuko duen informazioa zehazteko.

Nahiz eta entitate aktibo bakoitzari item ezberdinak agertuko zaizkie, oinarrizko bost gaitasunen arabera (afektiboa, soziala, komunikatiboa, psikomotorra eta ezagutzakoa) izango dira beti, izan ere, gaitasun horiek gure bizitzan zehar beharrezkoak izango ditugu eta etapa guztietan lantzea komenigarria suertatzen da. Proposatutako bost gaitasun hauek, ikaslearen inguruko pertsonak aztertu eta behatu beharrekoak dira haurren egunerokoan, protokoloa betetzeko orduan erraztasun eta zehaztasun handiagoa izateko. Profesionalek eta familia kideek aztertutakoa behin protokoloan txertatuta, erantzun guztiak “pdf” formatuko dokumentu batean deskargatzeko aukera egongo da, bertan hiru partaideek esandakoa ageriz.

AFECTIVA
SOCIAL
COMUNICATIVA
PSICOMOTORA
COGNITIVA
RUTINA

3. irudia: Protokoloan proposatzen diren ebaluatzeko gaitasun eta arlo ezberdinak.

AFECTIVA	
<input type="checkbox"/>	ES CAPAZ DE IDENTIFICAR SUS EMOCIONES. 56
<input type="checkbox"/>	HACE VER CUANDO ALGO ES DE SU AGRADO. 55
<input type="checkbox"/>	HACE VER CUANDO ALGO NO ES DE SU AGRADO. 54
<input checked="" type="checkbox"/>	HACE VER CUANDO ESTÁ ABURRIDO/A. 53
<input type="checkbox"/>	HACE VER CUANDO ESTÁ ASUSTADO. 52
<input checked="" type="checkbox"/>	HACE VER CUANDO TIENE MIEDO. 51
<input type="checkbox"/>	IDENTIFICA CUANDO OTRA PERSONA ESTÁ ENFADADA. 50
<input type="checkbox"/>	IDENTIFICA CUANDO ÉL/ELLA ESTÁ ENFADADO. 49
<input type="checkbox"/>	IDENTIFICA CUANDO OTRA PERSONA ESTÁ CONTENTA. 48
<input type="checkbox"/>	IDENTIFICA CUANDO ÉL/ELLA ESTÁ CONTENTO/A. 47
<input type="checkbox"/>	IDENTIFICA CUANDO OTRA PERSONA ESTÁ TRISTE. 46
<input type="checkbox"/>	IDENTIFICA CUANDO ÉL/ELLA ESTÁ TRISTE. 45

4. irudia: Gaitasun afektiboa eredutzat hartuta, hiru partaideek topatuko dituzten item motak.

Behin erantzun guztiak izanda, haien artean alderatzeko aukera egongo da. Erantzunak partaide bakoitzak alderatu ahalko ditu, ikaslearen abilezien garapena edo zailtasunak ikusiz. Erantzunak alderatuta, edozein partaideak beste partaideei jakinarazi ahalko dizkio bere kezak edo proposamen berriak, gehigarrietan txertatuz. Modu honetan, partaideen arteko lana koordinatu ahalko da eta beharrezko hezkuntza-pautak ezarri, ikasleen beharrei egokitasun gehiagorekin erantzunez.

Friday 11th of May 2018 08:08:46 AM				
Nombre	Primer Apellido	Segundo Apellido	Entidad	Item
maria	bariain	2	ana	Reconoce a los/las tutores/as de su grupo.
maria	bariain	2	ana	Es capaz de mantener el contacto visual.
maria	bariain	2	ana	Acepta positivamente el contacto fisico por parte de los/as profesionales.
maria	bariain	2	ana	Emplea pictos con dibujo.
maria	bariain	2	ana	Emplea pictos con palabra.
maria	bariain	2	ana	Es capaz de comunicarse por la comunicación no verbal.
maria	bariain	2	ana	Psicomotricidad fina: Hace churros con la plastilina.
maria	bariain	2	ana	Psicomotricidad fina: Crea bloques.

6. irudia: Partaideek emaitzak alderatzeko deskargatu dezaketen PDF-ren eredia.

Laburbilduz, ikasleek Haur eta Lehen Hezkuntzan garatu ditzaketen helburuak proposatu dira protokoloan gaitasun ezberdinen araberakoak (afektiboa, soziala, komunikatiboa, logikoa, idazketa-irakurketa eta egunerokoak). Ikaslearen testuinguruko partaide aktiboek bizitako errealitatea kontuan hartuta, ikasleak burutzen dituen helburuak aukeratu beharko dituzte; behin guztiek protokoloa bete dutela, haien artean

komunikatu beharko dira hezkuntza-pauta berdinak lantzeko eta haien arteko lan koordinazioa bultzatzeko; ikaslearen beharrei erantzun ahalik eta egokiena emateko.


4. Emaitzak eta eztabaida

Lanean zehar adierazi den moduan, honako lan hau aurrera eraman ahal izateko, proiektuarekin zerikusia zuten partaideen ikuspuntuak kontuan hartu dira haien beharrak aztertu ahal izateko, bai umeena eta bai entitate aktiboena.

Hasiera batean, protokoloaren diseinuaren noranzkoak erabakitzen joateko, familia, zenbait eskola eta A.N.A-ko profesionalentzat galdetegi bat prestatu zen, non protokoloan ageri beharreko arlo ezberdinak proposatzen ziren. Protokoloan ageri beharreko arloak zehaztasunez aztertu ahal izateko, hiru entitate aktiboek galdera berdina planteatu zitzairen: Haurren testuinguru ezberdinetako profesionalen arteko komunikazioa hobetzeko, zer nolako arloak gustatuko litzaizuke lantzea?

Behin parte hartu beharreko partaideek galdetegia erantzun dutela, emaitzak grafiko batean adierazten dira. Irudian ikusi daitekeen moduan, urdinez, garapen emozionala adierazten da; gorritz, komunikatzeko gaitasuna; horiz, gaitasun soziala; berdez, eguneroko errutinak; eta azkenik, morez, errepikatzen diren jarrerak (estereotipiak...).

Familien arloa aztertuta, honako grafika topa daiteke:



6. irudia: Familien arabera, protokoloan ageri beharreko arloen garrantzia.

Behin parte hartu beharreko partaideek galdetegia erantzun dutela, emaitzak grafiko batean adierazten dira. Irudian ikusi daitekeen moduan, urdinez, garapen emozionala adierazten da; gorritz, komunikatzeko gaitasuna; horiz, gaitasun soziala;

berdez, eguneroko errutinak; eta azkenik, morez, errepikatzen diren jarrerak (estereotipiak...)¹⁶

Grafikoa behin behatuta, ikus daiteke familientzat garapen emozionala eta komunikatiboa oso garrantzitsuena dela; jarraian, gaitasun soziala eta egunerokoak; eta azkenik, garrantzia gutxiengoarekin jarrera errepikakorrak dira.

Behin gainontzeko deskribapena eginda, gaitasun bakoitza aztertuko da. Garapen emozionalari dagokionez, 12 familietatik 9 familiek nahita ez garatu beharreko arlo bat dela adierazi dute; beste 3 familiek, aldiz, garrantzitsua dela adierazi dute. Gaitasun emozionalaren parean, komunikatzeko gaitasuna kokatu behar da, izan ere, 9 familiek baita adierazi dute nahita ez garatu beharreko arlo bat dela; hala ere, 2 familiek oso garrantzitsua dela adierazi dute eta beste batek garrantzitsua dela zehaztu du.

Familiek autismoaren ezaugarriak kontuan hartuta, gaitasun sozialari berezko garrantzia eman diote. Aurreko beste bi gaitasunen botoekin alderatzen baldin bada, gaitasun sozialeko botoak sakabanatuagoak izan dira, izan ere, 4 familiek nahita ez garatu beharreko gaitasun bat dela adierazi dute; 2 familiek oso garrantzitsua eta azkeneko batek garrantzitsua dela adostu du.

Azkeneko bi arloei dagokienez, hau da, jarrera errepikakorrak eta egunerokoak ez dute hainbesteko garrantzia hartu. Bi hauen artean, egunerokoak garrantzia gehiago hartu dute jarrera errepikakorren arloa baino, emaitzak honelakoak izanda: egunerokoei dagokienez, 3 familiek nahita ez garatu beharreko arlo bat dela adierazi dute; gainontzeko hiru familiek garrantzitsuak direla adierazi dute. Azkeneko arloari dagokionez, jarrera errepikakorrei zehazki, gehiengo familiek garrantzitsua dela adierazi dute; beste bik oso garrantzitsua dela; beste batek nahita ez garatu beharrekoa; eta azkeneko familia batek, ez nahitaezkoa dela.

¹⁶ Grisez azpimarratutako esaldietan, grafikoko koloreen esanahia azalduko da.

Galdera berdina eskola ezberdinetako profesionali egin zitzaien, honelako emaitzak ageriz:



7. irudia: Eskolako profesionalen arabera, protokoloan ageri beharreko arloen garrantzia.

Behin eskola ezberdinetako profesionalak galdera erantzun dutela, grafikoan kolore ezberdinak erabilia emaitzak zehazten dira. Honako hauek dira erabilitako koloreak: urdina, elkartean ipinitako helburuak; gorriz, elkartean izandako gaitasun sozialak; laranja, eskolaz kanpoko garapen emozionala; berdez, eskolaz kanpoko gaitasun sozialak; eta azkenik, morez, elkartean eta familian mantentzen dituen egunerokoak.

Grafikoa behatzen baldin bada, argi dago eskolako profesionalentzat, elkartean ipinitako helburuak nahita ez garatu beharreko arlo bat dela. Garatu beharreko arloen artean, elkartean izandako gaitasun sozialak, eskolaz kanpoko garapen emozionala eta eskolaz kanpoko gaitasun sozialak, berezko garrantzia hartzen dute adituen artean. Aldiz, ez oso atzetik geratzen den azkeneko arloa elkartean eta familian mantentzen dituen egunerokoak dira.


Grafikoa behartuta, proposatutako arloak zehaztasunez aztertuko dira: Alde batetik, garrantzia handia hartu duen arloa elkartean ipinitako helburuak izan da, izan ere, 7 profesionalak oso garrantzitsua dela adierazi dute; beste 4-k nahita ez garatu beharrekoa; eta azkeneko 2 profesionalak garrantzitsua dela adierazi dute.

Jarraian, elkartean izandako gaitasun sozialen arloa azertu behar da. Arlo honetan, 6 profesionalak nahita ez garatu beharreko arlo bat dela zehaztu dute; 5-ek oso garrantzitsua dela adierazi dute; eta azkeneko 4 profesionalak garrantzitsua dela bozkatu dute.

Eraitza berdina jaso dituzten bi arloak honako hauek dira: eskolaz kanpoko garapen emozionala eta eskolaz kanpoko gaitasun sozialak. Beraz, 4 profesionalak nahita ez garatu beharreko arloak direla zehaztu dute; modu berean, 6 profesionalak oso garrantzitsua dela bozkatu dute.

Azkenik, garrantzia gutxien jaso duen arloari dagokionez, elkartean eta familian mantentzen dituen egunerokoak izan da. Kasu honetan, 5 profesionalak nahita ez garatu beharreko arlo bat dela zehaztu dute, eta beste 5-ek oso garrantzitsua dela adierazi dute.

Proposatutako galderarekin bukatzeko, A.N.A-ko profesionalak adierazitako informazioa adieraziko da:



8. irudia: A.N.A-ko profesionalen arabera, protokoloan ageri beharreko arloen garrantzia.

Grafiko honetan 9 profesionalak parte hartu dute. Galdetegi honetan, elkarteari arlo ezberdinak proposatu zitzaizkion, grafikoan kolore ezberdinen bidez adierazten direnak: Urdin koloreari dagokionez, eskolan ipinitako ikasturteko helburuak; gorri, elkartetik kanpo izandako jarrerak; horiz, elkartetik izandako gaitasun soziala; berdez, elkartetik kanpo izandako komunikatzeko gaitasuna; azkenik, morez, eskola eta familian izandako egunerokoak.

Grafikoa behatzen baldin bada, kolore gorriak garrantzia hartzen duela ikus daiteke, hau da, elkartetik kanpoko izandako gaitasun soziala. Gaitasun honetan, 8 profesionalak adierazi dute protokoloan nahitaez garatu beharreko arlo bat dela; honakoa beste 7 profesionalen botoekin bat egiten dute, izan ere, oso garrantzitsua ikusten dute umearen garapenerako.

Garrantzia hartzen duen hurrengo arloa eskolan ipinitako ikasturteko helburuak da, izan ere, 6 profesionalak nahitaez garatu beharreko arlo bat dela adierazi dute; 7

profesionalek oso garrantzitsua ikusten dute; garrantzitsua, aldiz, 2 profesionalak; eta azkenik, ez nahitaezkoa dela profesional batek adierazi du.


Kasu honetan baita, hori eta berde kolorea bat egiten dute emaitzetan. Kolore horiari dagokionez, 4 profesionalak nahitaez garatu beharreko arlo bat dela adierazi dute; beste 4-k oso garrantzitsua ikusten dute; eta azkeneko profesional batek garrantzitsua dela dio.

Elkartetik kanpo izandako komunikatzeko gaitasunak, elkartetik izandako gaitasun sozialaren antzeko emaitzak jaso ditu, izan ere, bietan 2 profesionalak garrantzitsua dela zehaztu dute; beste 3-k oso garrantzitsua dela; eta azkenik, nahitaez garatu behar dela adierazi duten 5 profesional daude.

Azkeneko arloari dagokionez, eskola eta familian izandako egunerokoak zehazki, berde kolorearen parean koka dezakegu, izan ere, biek jasotako emaitzak antzekoak dira. Kasu honetan, 5 profesionalak nahitaez garatu beharreko arlo bat dela diote; beste 4-k oso garrantzitsua dela; eta azkeneko batek, garrantzitsua dela adierazi du.

Behin lehenengo galdera hiru partaideek modu indibidualean erantzun zutela, modu orokorrean erantzun beharreko beste zenbait galdera proposatu zitzaizkien; horietako galdera guztiak protokoloaren erabilpenari buruz izan ziren.

Galdera horien artean, honakoa zegoen: Nola gustatuko litzaizuke informazioa jasotzea?




9. irudia: Emandako erantzun ezberdinen datuak, ehunekoetan adierazita.

Galdera honen analisia egin ahal izateko kontuan izan behar da osotara 20 pertsonen erantzun zutela, bai eskola, bai familiak eta bai elkarteak. Bestetik, legedia kontuan hartuta, grafikoan ikus daitezken koloreak kontuan hartu behar dira; **urdina, korreoz; gorritz, telefonoz; horiz, idatziz; eta azkenik, berdez, presentzialki.**

Grafikoa behatzerakoan garbi ikus daiteke, partaide gehienek informazioa presentzialki jasotzea nahiago dutela eta inork ez telefonoz jasotzea. Datuak aztertzen baldin badira, ehuneko handiena duenak presentziala izan da, % 45-arekin zehazki, hau da, 20 pertsonetatik 9-k. Bestetik, % 30-arekin, informazioa idatziata jasotzea dutenak daude, 20 pertsonetatik 6-k; azkenik, % 25-arekin, korreoz jaso nahi dutenek daude, 20 pertsonetatik 5-ek.

Proposatu zen beste galdera bat honakoa izan zen: Jasotako informazioa, nola gustatuko litzaizuke jasotzea?




10. irudia: Proposatutako galderaren erantzunak ehunekoetan adierazitak.

Galdera honen analisia egin ahal izateko kontuan izan behar da osotara 20 pertsonen erantzun zutela, bai eskola, bai familiak eta bai elkarteak. Bestetik, legedia kontuan hartuta, grafikoan ikus daitezken koloreak kontuan hartu behar dira; **urdina, garatua; gorritz, grafikoan bidez; horiz, errubriken bidez; eta azkenik, berdez, taulen bidez.**

Grafikoa behatzen baldin bada, informazioa garatua nahi dutela adierazi dutela gehienek ikus daiteke; gutxien, aldiz, grafikoan bidez. Beraz, behin behartuta datuak aztertuko dira: % 45-arekin informazioa garatua nahi dutenek daude, 20 pertsonetatik 9-k zehazki; jarraian, % 35-arekin, taulen bidez nahiago dutenek daude, 20 pertsonetatik 7-k zehazki; horiz, % 15-arekin, errubriken bidez nahi dutenek daude, hau da, 20

pertsonetatik 3-k; azkenik, ehuneko txikienarekin, % 5-areki, grafikoaren bidez daudenak daude.

Galdetegian, azkeneko galdera bat planteatu zen: Zenbatero gustatuko litzaizuke informazioa jasotzea?



11. irudia: Proposatutako galderaren erantzunak ehunekoetan adierazitak.

Galdera honen analisia egin ahal izateko kontuan izan behar da osotara 20 pertsonak erantzun zutela, bai eskola, bai familiak eta bai elkarteak. Bestetik, legedia kontuan hartuta, grafikoan ikus daitezken koloreak kontuan hartu behar dira; **urdina**, **astero**; **gorriz**, **bi astetan behin**; **azkenik**, **horiz**, **hilabetero**.

Grafikoa behatzen baldin bada, argi ikusi daiteke gehiengoek informazioa hilabetero jasotzea nahiago dutela, % 65-ak zehazki, hots, 20 pertsonetatik 13-k; bi astetan behin jasotzea nahiago dutenek, aldiz, grafikoaren % 20 dira, hau da, 20 pertsonetatik 4-ek; azkenik, astero informazioa jaso nahi zutenek gutxiengoa izan dira, grafikoaren % 15-a zehazki, 20 pertsonetatik 3-k.

Protokoloaren diseinua eta erabilpena antolatzeke galdera alde batera utzita, lanean zehar beste zenbait inkesta burutu dira, partaide eta autismoa pairatzen duten umeen beharrak egokitasunez aztertu ahal izateko. Inkesta horien artean, zenbait eskolei egindako inkesta dago, zeinetan Mendigoiti eskola eta Colegio Izaga partaide izan ziren. Eskola hauen hautaketa ez zen ausazkoa izan, baizik eta nahita erabakita: Mendigoiti ikastetxe publikoa eta Izaga Colegio pribatu bat direlako, horien arteko baliabide eta beharrak alderatzeko asmoz.

Inkestan galdera ezberdinak proposatu ziren, honakoa lehenengoa izanda: Zenbat PT daude zure eskolan? Lanean, zenbat ordutan aritzen dira eskolan?

Galdera honen erantzunak, publiko eta pribatuaren arteko ezberdintasuna aztertze ahalbidetu zigun, izan ere, ikasleen kopurua kontuan hartuta PT eskaintza ezberdina zen: Mendigoitiren kasuan, 236 ikasle dira Lehen eta Haur Hezkuntza bitartean eta PT bakarra dago ikasleen behar guztiei erantzuteko, astean bakarrik 3 egunetan egonez 4 ordu egun bakoitzean, 12 ordu astean esate baterako. Izagan, aldiz, nahiz eta bertan Batxilergoa egin daitekeen, Haur eta Lehen Hezkuntzako etapak kontuan hartuta, osotara 500 ikasle daude, eta beraien beharrei erantzun ahal izateko, eskolak 3 PT ditu bere baitan, asteko egun guztietan parte hartuz.

Bigarren galderari dagokinez, honako hau proposatu zitzaien: Noizbait autismoa pairatzen zuen ikasleren bat izan duzu?

Kasu honetan, inkesta erantzun zuten bi PT-ek baiezkoa eman zuten; Mendigoitiko PT-ak Garcia Galdeanoko eskolan; Izagako PT-ak aldiz, Izagan bertan. Biek baiezkoa eman zutela probestua, beste galdera bat planteatu zitzaien: Uste duzue gaur eguneko eskolako profesionalek formakuntza nahikoa dutela autismoa pairatzen duen ikasle batekin aritzeko? Kasu honetan baita, bi PT-ek emandako erantzunean bat egin zuten, izan ere, biek ezezkoa erantzun zuten. Bien erantzuna kontuan hartuta, biek gehiengoek formakuntza eza zutela adierazi zuten, nahiz eta kasu gutxi batzuetan profesional batzuk formakuntza izan. Dena den, nahiz eta formakuntzarik ez izan eta egunen batean autismoa pairatzen duten ikasle batekin elkarlanean aritu behar baldin badira, eskolek formakuntza eskaintzen ohi dute, eskolako orientatzaile eta PT-ak zehazki. Gainera, horrelako kasuetan, nahiz eta eskolak formakuntza eskaini, irakasleek formakuntza eskolatik at bilatzen ohi dute, autismoa pairatzen duen ikasleari ahalik eta kalitatezko hezkuntzarik hoberena eskaini ahal izateko.

Bi PT-ek eztabaidan sartu zirela, momentuko ideia proposatu zitzaien: Imaginatu zuen eskolako gela batean autismoa pairatzen duen ikasle bat dagoela, interesgarria izango litzake bertako ikasleei autismo zer den azaltzea?

Bi PT-eeek baiezkoa eman zuten. Gainera, Izagako PT-ak horrelako ideia praktikara eraman duela adierazi zuen, duela 3 urte Haur Hezkuntzako gela batean. Egoera horretan, ikasleek autismoaren ideia orokorra jaso zuten eta haien lagunarekin harreman sozialak sustatzeko baliabide ezberdinak eskaini zitzaizkien.

Lehen aipatu den bezala, inkestak protokoloan parte hartuko zuten partaide ezberdinei abiaraziko zitzaieela adierazi da. Beraz, eskolako inkestaren emaitzak adierazita, familiek entzundako inkestaren azalpena adieraziko da. Kasu honetan, autismoa pairatzen duten seme-alabaren bat duten 5 familiek parte hartu zuten; familia horiek hautatzearen arrazoia haien seme-alabaren hezkuntza egoera izan zen. Hurrengo galderetan zehar 4 familiei egindako galderak adieraziko dira, eta aurrerago 5. familia bati egidakoa, egoera ezberdina da eta.

4 Familiei egin zitzaizkien lehenengo galderak, umearen hezkuntza testuingurukoak izan ziren. Hona hemen planteatutako lehendabiziko galdera: Zuen seme-alabak zein eskolara joaten dira; publikora edo pribatura?

Kasu honetan, emaitza simetrikoa izan zen, hau da, 2 familiek eskola publikora eramaten zutela adierazi zuten. Beste 2 familiek, aldiz, pribatura eramaten zutela adierazi zuten.

Umeen hezkuntza testuinguruari buruz gehiago jakin ahal izateko beste honako galdera hau proposatu zitzaien: Zuen seme-alabak ohiko eskolara edo hezkuntza bereziko eskolara doaz?

Kasu honetan, 4 familiek haien seme-alabak ohiko eskoletara eramaten zituztela adierazi zuten. Galdera honen erantzuna kontuan hartu beharrekoa da, izan ere, ezta familia batek ez zuen erantzun Hezkuntza Bereziko eskola batera joaten zenik.

Eskolen barne testuinguruak ezagutu ahal izateko, hurrengo galdera proposatu zitzaien: Eskolan ze profesionalak aritzen dira zuen seme-alabekin elkarlanean?

Galdera honen erantzuna jasotzerakoan, eskola publiko eta eskola pribatuen arteko ezberdintasun nabaria izan zen. Eskola publikoko familiek PT-a eta AL seme-alabekin elkarlanean aritzen zirela adierazi zuten; horietako 9 ordu jasoz eta besteak 3 ordu jasoz. Hala ere, datorren urterako hobekuntzak itxaroten dituztela zehaztu zuten. Eskola pribatuko familiek, aldiz, PT-a, psikologoa eta AL-arekin elkarlanean aritzen dira azaldu zuten; dena den, nahiz eta astean zehar laguntza ordu aunitzetan jaso, familiei ordu gehio eskeintzea gustatuko litzaieke.

Azkenik, eskolako PT-eei galdetu zitzaien bezala, formakuntzarekin zerikusia zuen galdera proposatu zitzaien: Uste duzue eskolako profesionalek beharrezko formakuntza dutela, autismoa pairatzen duten ikasleekin aritzeko?

Hiru familiek ezezkoa eman zuten, izan ere, autismoa eguneroko bizitzan topatzen ez den nahaste bat da eta ezagutza eza izaten ohi dute. Hala ere, baiezkoa ezta ezezkoa adierazi zuen familiak esan zuen moduan, nahiz eta profesionalek ezagutza izan, profesionalen motibazioa eta inplikazioa da garrantzitsuena; izan ere, profesional batek ezagutza aunitz izan ditzake, baino ikaslearekiko inplikazio gutxi.

Oraingoan, hasieran aipatu den 5. familiaren egoera azalduko da, hala ere, jakin behar da familia honi egindako galderak aurreko familiei egindako galdera berdinak direla.

Familia honen egoera berezia zela aipatu denean, ikaslearen hezkuntza prozesua ezberdina izan zelako da. Familia honek bere semea hasiera batean, Haur Hezkuntzako etapa burutzeko, pribatua zen eskola batean sartu zuen, Paz de Ziganda Ikastolan zehazki. Denbora aurrera zioan einan eta semea Haur Hezkuntzako etapa burutu zuelarik, ikastola honek baliabide nahikorik ez zutela ikusi zuten. Beraz, egoera honen aurrean, gurasoek Hegoalde eskola eramatea adostu zuten, eskola publiko batera zehazki. Bertan Lehen Hezkuntzako 2 kurtso burutu zituen eta berriz eskolaz aldatzea erabaki zuten, kasu honetan Patxi Larraintzar eskola publikora. Azkenik, umeak Lehen Hezkuntzako Etapa hemen burutu zuen, eta egokitzen egiten ez zuen Institutorik ez zegoela, El Molino eskolara eramatea adostu zuten, eskola kontzertatu batera. Gaur egun, bertan egongo da 21 urteak izan arte. Amak adierazi zuenez, bere semea ohiko eskola batera eraman nahi zuen, gizartean integratzeko helburuarekin. Hala ere, beste aukerarik ez zegoenez, gaur egun hezkuntza bereziko eskola batera eramaten du.

Familia honek zehaztu zuenez, bere semea normalki T.U¹⁷-ko gelan egoten ohi zen berari egokitutako curriculumak garatzen, nahiz eta astean zehar zenbait ordutan bere ohiko ikasgelara joaten zen, gainontzeko ikasleekin gaitasun soziala garatzeko helburuarekin.

¹⁷ T.U: Trantsizio Unitateko gelak.

Familia honi ikasleei eskainitako orduak nahikoak ziren edo ez galdetu zitzaienean, gainontzeko familiek bezala ezezkoa adierazi zuten. Gainera, autismoari buruzko informazio gutxi izanda, eta T.U geletan 5 ume izanda, ezin zitzaien beharrezko laguntza eskaini zailtasunak zituzten ikasleei.

Azkenik, familia honen inkestari amaiera eman ahal izateko, beraiek jasotako laguntzei buruz galdetu zitzaien. Inkestan, amak zehaztu zuenez, haien semeari autismoa diagnostikatu ziotenean galduak ikusi ziren, baliabiderik gabe. Egoera honen aurrean, Segurtasun sozialak elkartean bisitatzea gomendatu zien, gurasoei, bitartean laguntza psikologikoa eskainiz. Horrela izanda, gurasoek ANFAS elkartera abiatu/edo bideratu zuten/ziren, eta bertan haien semearen tratamenduekin hasi ziren, haurraren beharrei erantzunak emateko asmoz. Aitak, laguntzen artean, diru laguntzak aipatu zituen, dituzten gastu guztiak ordaintzeko nahikoak ez zirela zehaztuz.

Behin familien inkesta aztertuta eta partaideen inkestekin bukatzeko, A.N.A elkartean egindako emaitzak adierazi behar dira. Elkarteari proposatu zitzaizkion galderak orokorrak izan ziren, batez ere elkartearen profesional taldea eta proiektuei buruzkoa.

A.N.A-ko gizarte langileak adierazi zuen bezala, elkartearen profesional taldea urtearen etaparen arabera izaten da. Hala ere, badaude zenbait partaide urte osoan zehar berdinak direnak, hala nola, zuzendari 1, gizarte langile bat, 6 psikologo, 3 logopeda eta elkarteko 5 ama. Udako proiektua iristen denean, aipatutako profesionalak mantentzen dira, baina umeekin elkarlanean arituko diren adituen kantitatea handiagotuko da, 22 profesional izanik, horien artean irakasleak, psikologoak, logopedak... egonda.

Elkarteko proiektuak eta profesional kopurua kudeatu ahal izateko, A.N.A-ko zuzendariak zehaztu zuen jasotako diru laguntzekin egiten zutela, hots, finantziario publiko eta pribatuen bitartez. Finantziario publikoei esker, elkartean beharrezko diruaren %30-a jasotzen du; finantziario pribatuetatik, aldiz, % 70-a. Dena den, elkarreak jasotako diru laguntzak nahikoak ez direla uste dute, izan ere, haien proiektuak diruarengatik mugatuak ikusten dituzte.

Bestetik, protokoloaren diseinuarekin zerikusia zuten beste galdera batzuk planteatu ziren. Galderen artean, erabiltzaileen adin tarteak galdetu ziren, modu honetan protokoloan txertatu beharreko itemak osatu ahalko ziren. Galdera eginda, elkarteak adin ezberdinetako erabiltzaileak zeudela adierazi zuten, hau da, 18 hilabetetatik hasita 30 urte izan arte.

Azkenik, galdetegiarekin bukatzeko, A.N.A-ko zenbait partaideei eskoletan profesionalek zuten formakuntzari buruz galdetu zitzairen. Adu guztiak ados zeuden, gaur eguneko eskoletan autismoari buruzko formakuntza eza dago, eta horregatik A.N.A elkartetik, eskola ezberdinetan autismoari buruzko tailerrak egiten hasi dira, bai irakasle eta bai ikasleentzako, hau da, gizartean eragin gehien duten gizarte taldeekin.

Ondorioak

Lan honen bidez ezagutzen ez ziren datu eta ezagutza berri aunitz bildu dira. Proiektuan zehar adierazi diren datu asko, autismoarekin egunero elkarlanean aritzen diren pertsonen esperientziaren bidez jasoak izan dira, izan ere, lanean txertatutako informazioa eskola, familiak edota elkarteak eskaini ditu.

Aipatutako hiru talde horiek, autismoa pairatzen duen ume batekin aritzen dira haren hezkuntza arloko testuinguruan parte hartuz. Beraz, hezkuntza burutzen diren zentroetan inkestak egin ziren bertako profesionalekin, aniztasunaren trataera nolakoa zen aztertzeko helburuarekin. Aduen esanetan, inkestetan irakurri daitekeenez, aniztasuna eskoletan onuragarritzat hartzen da, ikasleei haien ikas-prozesuan aberasten baitie. Kontuan izan behar da, abantaila handia dela guztiak ezberdinak garela esperimentatu ahal izatea, gizartean zailtasunak dituzten pertsona ugari daude eta. Gaur eguneko ikasleek Haur Hezkuntzako etapan aniztasunarekin garatzen hasten baldin badira, etorkizun batean ez da integrazioari buruz hitz egin beharko, baizik eta bizikidetzaz.

Familien inkestetan ikusi daitekeenez, nahiz eta Hezkuntza Bereziko eskolek zailtasunak dituzten ikasleengan esperientzia eta baliabide gehiago izan, familia gehienek ohiko eskoletan izena ematen dute; izan ere, garrantzia handiago ematen diote gizartean

integratzeari akademikoki ongi joateari baino. Horregatik, geroz eta beharrezkoa da ohiko eskoletan zailtasunak dituzten pertsonetan formakuntza duten baliabide pertsonal gehiago egotea, gaur egungo eskaintza eskaera baino murriztuagoa baita.

Bestetik, eskolei buruz ari garela, bai profesionalek eta bai familiek, garrantzitsua ikusten dute Haur eta Lehen Hezkuntza etapetan zehar autismoari buruzko formakuntza ematea, bai ikasle eta bai irakasleei. Eskoletan autismoari buruzko ezagutza eza gainditzeko, Nafarroako zenbait elkarte tailerrak ematen hasi dira. Tailer hauen bidez, eskolan autismoa pairatzen duen pertsona bat dagoela azaldu nahi dute, haren zailtasunak eta abantailak azalduz. Azalpenen bidez, ikasleek eta irakasleek honako zailtasun hau duten umeek nola lan egin azalduko diete, aurrerago gizartean autismoa ezaguna eta integratua egon dadin.

Lanean zehar ikasleen eta hiru entitate aktiboen beharrei erantzuna eman nahi izan zaie. Horregatik, egindako galdetegien bidez, hiru partaideek haien beharrak adierazteko aukera izan dute. Hasiera batean, protokoloan ageri beharreko arloak zehazteko galdera batzuk egin zitzaizkien; hiru talde ezberdinek berezko garrantzia eman zieten garapen emozionala eta komunikatiboari. Egia da gaitasun bakoitza bere aldetik oso garrantzitsuak direla, baina haien arteko erlazioa oso estua da eta haurren garapenean bien arteko elkarlana beharrezkoa da. Azaldu denez, autismoa pairatzen duen ume bati zaila egiten zaio besteekin komunikatzea, eta are gehiago bere emozioak adieraztea. Pertsona neurotipiko bati zaila egiten baldin bazaio haren emozioak identifikatzea edota adieraztea, oraindik eta zailagoa da hizkuntza menperatuta ez duten pertsoneri. Horregatik, komenigarria da haurren testuinguru ezberdinetan bi gaitasunei garrantzia ematea eta umeari haien garapenean laguntzea, izan ere, geroz eta gehiago lantzen baldin badira hezkuntza-pauta berdinekin, haurraren eragin handiagoa izango du eta haren gaitasunak nabariagoak izango dira. Bi gaitasunekin estuki lotuta dagoen beste arlo bat, familiek eta profesionalek adierazi dutenez, egunerokoak dira; autismoa pairatzen duten ikasleei errutina bat mantentzea onuragarri egiten zaie, haien krisialdiak murriztuz eta haien garapenarekin aurrera egiteko aukerak areagotuz.

Komunikatzeko gaitasunaz ari garela, aipatu beharra dago autismoa pairatzen duten pertsonen beste zailtasun batekin erlazionatuta dagoela, hau da, gaitasun sozialarekin. Pertsona guztioi gertatzen zaigun moduan, komunikatzeko gaitasuna garatua ez baldin badugu, zaila egiten zaigu beste pertsonekin harremanetan jartzea, izan ere, besteek ez dute gure nahia ulertuko. Hymes soziologoak 1971an adierazi zuenez, gaitasun komunikatiboak beste pertsonekin harremanetan jartzea ahalbidetzen digu, izan ere, hitzez edo keinuen bidezko hizkuntzaren bidez beste pertsona batek ulertu ahal digu. Hezkuntza arloan aritzen diren profesionalek, zailtasunak dituzten umeekin aritzerakoan, kontuan izan beharko dute haurren testuingurua, bere kultura esate baterako. Mundu osoan kultura aunitz daude, eta bakoitza bere komunikatzeko kodea du; horregatik, ikasleari komunikatzeko gaitasunean laguntzeko bere kultura aintzat hartuko dugu, bere testuinguruetan kode hori erabiliko baita.

